


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**USTEKABEKO AKUSAZIOA PROZEDURA
LABURTUAN: KASU ERREAL BAT
AZTERGAI**

GRADU AMAIERAKO LANA

ZUZENBIDE GRADUA

ZUZENBIDE FAKULTATEA. BIZKAIKO ATALA

2020-2021 IKASTURTEA

EGILEA: ITZIAR AGUIRRE ABAD

ZUZENDARIA: KATIXA ETXEBARRIA ESTANKONA

AURKIBIDEA:

LABURDURAK	4
1. SARRERA	5
2. PROZESUAREN HASIERA	7
2.1. Prozesua eragin zuten egitateen kontestualizazioa	7
2.2. Salatutako egitateak eta polizia-atestatuak jaso zituenak	7
2.3. Inkoazio-autoan jasotako egitate zigorgarri bakarra	9
2.4. Prozesuan aurrera eramane ziren ikerketa eginbideak	9
3. PROZESUAREN GARAPENA: EGINTZA PROZESALEN IBILBIDEA ETA USTEKABEKO AKUSAZIOA	12
3.1. Transformazio-autoa	12
3.1.1. <i>Ikertutako egitateen garrantzia</i>	12
3.1.1.1 Egitateak salatutako momentutik ikertuak izan arte.....	13
3.1.1.2 Auto honetan jaso ziren egitateak: ikertutako eta autoan sartu zenaren arteko desberdintasuna.....	14
3.1.2. <i>Transformazio-autoaren funtzioa</i>	15
3.1.2.1. Prozesuaren objektuaren mugak finkatzea.....	16
3.1.2.2. Prozesu penaleko subjektu pasiboaren inputazio formala.....	18
3.2. Fiskalaren akusazio-idazkia: ustekabeko akusazioa	21
3.2.1. <i>Akusazio-idazkiaren mugak</i>	21
3.2.2. <i>Behin-behineko ondorioak: ustekabeko akusazioaren jatorria</i>	22
3.2.3. <i>Transformazio-autoan eta akusazio-idazkietan jasotako egitateen arteko desberdintasuna</i>	23
3.2.4. <i>Fiskalak burututako ustekabeko akusazioa: analisia egitateen ikuspuntutik</i>	24
3.3. Ahozko epaiketa irekitzen duen autoa	28
3.3.1. <i>Ahozko epaiketa irekitzeko autoa: funtzioa</i>	28
3.3.2. <i>Ustekabeko akusazioaren aipamen eza</i>	29
3.4. Defentsa-idazkia	30
3.5. Epaia	31
4. AKUSAZIO PRINTZIPIOA USTEKABEKO AKUSAZIOEN MUGA GISA	33
5. USTEKABEKO AKUSAZIOAK DEFENTSARAKO ESKUBIDEAN DUEN ERAGINARI AIPAMEN BEREZIA	36
5.1. Defentsarako eskubideak prozesu penalaren subjektu pasiboari ematen dizkion bermeak	36
5.2. Konstituzionalki babesgabezia sortzeko ukanbearra	38

6. USTEKABEKO AKUSAZIOA EKIDITEKO BIDEAK.....	41
6.1. Transformazio-autoa errekurritzeko bideak.....	41
6.2. Defentsak ustekabeko akusazioa salatze bideak	42
7. ONDORIOAK	45
7.1. Egitateen ibilbideari buruz.....	45
7.2. Transformazio-autoaren funtzioari buruz.....	45
7.3. Ustekabeko akusazioari buruz	45
7.4. Epaileak emandako ebazpenari buruz	46
7.5. Defentsarako eskubideari buruz.....	47
7.6. Ustekabeko akusazioa ekiditeko bideei buruz.....	47
8. BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRIAK.....	48
8.1. Bibliografia	48
8.2. Jurisprudentzia.....	50
8.3. Araudia.....	52
8.4. Web-guneak.....	53

LABURDURAK

Laburdura	Esanahia
AAAA	Autore anitzak
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
GEEA	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEEAE	Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia
Ikus.	Ikusi
KA	Konstituzio Auzitegia
KAA	Konstituzio Auzitegiaren Autoa
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
OJ	Oinarri juridikoa
<i>op. cit.</i>	<i>opere citato</i>
or.	Orria(k)
PA	Probintzia Auzitegia
PAE	Probintzia Auzitegiaren Epaia
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea
zk.	Zenbakia
ZK	Zigor Kodea

1. SARRERA

Zuzenbide Graduko praktikak abokatu bulego batean egin nituen, eta bertan kasu praktikoak aztertzeko eta Justiziaren munduan lehen urratsak emateko aukera izan nuen. Kasu horietatik bat bereziki deigarria iruditu zitzaidan, bertan jasotzen zen egoera berezia zela eta. Interesgarria iruditu zitzaidan ikusi ahal izatea kasu erreal batean emandako arazo prozesal bat, eta horregatik horren analisira bideratu dut lan hau, ikerketa egitate zehatz batzuen gainean eginez. Izan ere, kasuari aurre egin behar izan nuenean argi ikusi nuen ezberdina dela liburuetatik lortu daitekeen ikuspuntua, eta praktikatik ondorioztatzen dena. Hau da, prozesu penala legeek arautzen duten arren, eguneroko praktikan ikusi ahal da arau hauek ez direla beti errespetatzen.

Gradu amaierako lan honek prozesu penalean auzipetuaren kontrako ustekabeko akusazioetan jartzen du arreta, prozedura laburtuaren esparruan garatutako kasu erreal baten ikuspegitik. Testuinguru honetan, ustekabeko akusazioa nola, noiz eta zergatik gerta daitekeen zehaztea izango da ikerketaren xedea, subjektu pasiboaren izan ahal duen eragina azaleratuz. Hori aztertzeko, araudia abiapuntutzat hartuz, jurisprudentziaren ildoak zein den, eta doktrinak jasotzen duena aztertuko dugu. Gainera, interesgarria da ikusi ahal izatea prozedura laburtuaren esparruan transformazio-autoak bete behar duen funtzioa, bai eta epaileak prozesu penalean zehar bete behar duen kontrol funtzioa ere.

Beraz, arazo honen azterketa egiteko, bost atal nagusi bereizi ditugu. Izan ere, jarraitutako egitura aztergai dugun kasuan eman ziren egintza prozesal garrantzitsuen garapen bera du. Lanaren lehenengo zatian, gure ikerketaren abiapuntua ezarriko dugu, oinarri izan dugun kasu errealeko elementu nagusiak azalduz. Zentzu honetan, zigor-prozesuaren hasiera eragin zuten egitateak eta horren garapena aztertu ditugu. Hau da, prozesuan eman diren pausuak jasotzen ditugu: salaketa, polizia-atestatua, inkoazio-autoa eta aurretiazko eginbideak. Honen helburua, arazoaren jatorria modu egokian finkatzea da, ondoren datorren analisiaren ulermena errazteko.

Lanean zehar mugituko garen agertokia finkatu ondoren, arazoaren azterketari ekin diogu. Atal honetan lanaren helburua den arazoaren azalpena eta analisia modu sakonean jaso dugu. Horretarako atal ezberdinak jaso ditugu: transformazio-autoa, fiskalaren akusazio-idazkia, ahozko epaiketa irekitzen duen autoa, defentsa-idazkia eta epaia. Aipagarria da, transformazio-autoaren atalean, honek duen funtzioa garatu dugula, kasuaren datuekin lotuz. Horrez gain, fiskalaren kalifikazio-idazkian arazoaren analisia egiteaz gain, Konstituzio Auzitegiak horren inguruan emandako doktrina biltzen saiatu gara, bai eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak horren inguruan dituen pronuntziamentuak ere. Ondoren, epaiak jasotzen duena aztertu dugu. Interesgarri iruditu zaigu lantzea Zuzenbidearen eguneroko praktikan sortu ahal den arazo baten aurrean epaileak ematen duen erantzuna, edo zelako parte-hartzea duen horren aurrean.

Hurrengo epigrafean akusazio printzipioari erreferentzia egin diogu. Izan ere, aztertu dugun ustekabeko akusazioak eraginak ditu akusazio printzipioan, eta ondorioz, lanaren atal honetan printzipio horrek bidezkoak ez diren akusazioak saihesteko duen muga funtzioa azaldu dugu.

Lanaren hurrengo atalean arazo horrek prozesu penalaren subjektu pasiboaren defentsarako eskubidean izan ahal duen eragina aztertu dugu. Horretarako, defentsarako eskubidea azaltzeaz gain, konstituzio babesgabezia emateko supostuak aztertu ditugu. Guzti hori, hasieran landutako egitateekin harremanetan jarriz aztertzen dugu.

Honen ostean, kasuan -zehazki, prozedura laburtuan- ustekabeko akusazioa ekiditeko bideak landu ditugu. Batetik, fiskalak transformazio-autoa errekurritzeko duen aukera aztertuko dugu. Bestetik, auzipetuaren defentsak dituen baliabideak landuko ditugu: ustekabeko akusazioa defentsa-idazkian salatzea edo ahozko epaiketaren aurretiazko arazoan izapidean salatzea.

Gaiaren ondorioekin eman diogu amaiera lanari. Bertan, lanaren egitura bera jarraituz, aztertutako elementu garrantzitsuenen inguruko gure hausnarketa eta ondorioak bildu ditugu. Eta azken orrialdeetan, lana osatzeko erabili ditugun iturriak jasota daude.

Arazo honen analisi egoki bat egin ahal izateko, iturri ezberdinak erabili ditugu. Doktrinaren aldetik, Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiko datu baseak eta liburuak erabili ditugu. Iturri gehienetan ez zaio arazo honi erreferentzia egiten modu zuzen batean, baina modu argian adierazten da ustekabeko akusazioak onartuta ez daudela. Bestalde, jurisprudenziak gai honen inguruan emandako ebazpen ezberdinak eskuratzeko, Aranzadi bezalako plataformak edo jurisdikzio organo beraren datu baseak (adibidez, Konstituzio Auzitegikoa) erabili ditugu. Horrez gain, legeria BOEko orrialde ofizialetik hartu dugu. Bukatzeko, web orrialdeak erabili ditugu lan honetan egiten dugun arazoaren analisisan sakondu ahal izateko. Aipatutako iturri guztiak ezinbestekoak izan dira lanaren objektua modu egokian aztertzeko.

2. PROZESUAREN HASIERA

Lanaren mamiaren nondik norakoak ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da aztertutako kasuaren egitateen aurretiazko azalpena egitea. Kasu honetan Maria Montoya dugu prozesu penalaren subjektu pasibo gisa, delituzkoak diren zenbait egintza aurrera eraman zituena¹.

2.1. Prozesua eragin zuten egitateen kontestualizazioa

Maria Montoya Venezuelakoa da². 2008. urtean Bilbora etorri zen lan egitera, lokal bat alokatu zuen Indautxun eta bertan jatetxe bat ireki zuen, *Zuzen* izeneko. Hamabi urte eman ditu jatetxea den negozio horren jabe gisa.

2018ko apirilean, bere amaren telefono dei batean, azken honek jakinarazi zion bere lehengusina, Catalina Montoya, langabezian zegoela, lan egiten zuen enpresa itxi egin zutelako. Catalinaren senarra langabezian ere bazegoen, eta estutasunean bizitzen ari ziren. Egoera horren aurrean, Maria bere lehengusinarekin kontaktuan jarri zen *Whatsapp* mugikor aplikazioaren bidez. Catalinak bere egoera jasanezina azaldu zionean, Mariak honakoa eskaini zion horri aurre egiteko: Bilbora bidaiatzea turista moduan, berak hegazkinez bidaiatzeko txartela ordaintzea, eta bertan geratzea legez kontrako modu batean. Gainera, ostatua emateaz eta bere jatetxean aldi baterako lana emateaz arduratuko zela jakinarazi zion Catalinari, bere egoera legezkoa bihurtzeko aukera izan arte.

2018ko abuztuaren 25ean, proposamena onartu ostean, Catalina Caracas-etik Parisera bidaitu zuen, eta ondoren Parisetik Bilbora. Bilbora turista moduan heldzean, Mariak beso zabalik hartu zuen, bere etxean ostatua emanez, eta bere jatetxean lanpostu bat emanez.

Baina, denborak aurrera egin ahala, Catalinak bere lehengusinarekin arazoak izaten hasi zen, haien arteko harremanak okerrera egin zuen azkenean. Behin eta berriz kontuz ibiltzeko esaten zion Mariak Catalinari, eta beldurtu egiten zuen. Gainera, ez zion diru asko ematen egindako lanagatik, horrekin bere ostatua ordaindu egiten zuela argudiatuz. Honen aurrean, Mariak, bere aldetik, bere egoera legezkozteko Catalina presionatzen saiatzen zen, baina azken honek beti jartzen zituen aitzakiak. Haien arteko desadostasunak handituz joan zirenez, azkenean Mariak Catalina jatetxetik kaleratzea erabaki zuen.

Egoera hau zelarik, Catalinak bere lehengusina salatu zuen. Horren ondorioz, Euskal Herriko Poliziaren Goi-Buruzagitzak, Atzerritartasun eta Mugen Brigadak zehazki, prozedura martxan jarri zuen. Maria Montoya atxilotu zuten, eta horri deklarazioa hartu ostean askatasunean jarri zuten.

2.2. Salatutako egitateak eta polizia-atestatuak jaso zituenak

Kasu honetan, aurretiazko eginbideak, polizialaren atestatuaren bitartez hasi ziren, 2019ko urtarrilaren 15ean, Catalina Montoyak komisaldegian pertsonalki ahozko salaketa egin ostean.

Honako egitateak jasotzen ziren salaketaren aktan: Mariak hegazkin erreserba egin zion, eta bere etxean geratzea ahalbidetu zion, berarentzat jatetxean lan egitearen truke. Mariak beti mehatxatu

¹ Datu hauek Zuzenbide Graduko praktikak egin ditudan abokatu bulegoko kasu batetatik lortutakoak dira.

² Datu pertsonalak aldatuta daude prozesuaren parte diren alderdien intimitatea babesteko.

eta izutu egiten zuen bere legez kontrako egoera zela eta. Behin, lanean zauritu egin zen eskuan, eta ez zion medikuarenera joaten utzi. Mariak bere mugikorra hartzen zuen bertan zuena kuxkuxeatzeko. *Whatsapp*-era bidali zion beste neska baten informazioa Lan Inspeksioa jatetxetik joanez gero, neska horregatik pasatzeko. Ez zion dirurik ematen lanagatik, soilik noizean behin, eta etxeko erosketak egiteko bakarrik. Haien arteko harreman txarragatik, Mariak Catalina jatetxetik kanporatu eta bere etxetik botatu zuen³.

Egitate hauetatik bi delitu ondoriozta daitezke: pertsonen immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitua⁴, eta langileen eskubideen aurkako delitua⁵. Lehenengo delituan jasotzen den portaera zigorgarria honakoa da: pertsona batek beste pertsona bati (Europar Batasuneko Estatu kide baten kidea ez dena) nahita laguntzen duenean Espainian sartzen edo bertatik igarotzen, horren inguruko legeria urratuz. Bigarrean, pertsona baten immigrazioan laguntzen duena zigortzen da, hori lan kontratu baten simulazio bidez edo iruzur bidez lortu egiten denean. Egitateen lehendabiziko kalifikazioa atestatuan egin zen, baina horrek ez du binkulatzen prozesuan emango den ondorengo kalifikazioa. Izan ere, kalifikazio honen aipamena garrantzitsua da lanean ondoren aztertuko dugun arazoarekin lotura duelako.

Aztertutako kasuan, atestatuaren jatorria Catalinak ertzain-etxean aurkeztutako salaketa izan zen⁶. Izan ere, atestatuak jasotzen dituen eginbideak ezberdinak dira ikertzen den delituaren arabera, beraz, prozesu honen jatorrizko egitateak direla eta, kasu honetan emandakoak aztertuko ditugu. Alde batetik, Maria Montoyaren atxiloketa eman zen. Catalina Montoyak Maria identifikatu zuen argazki

³ Egoera hori izanda, Catalina delituaren kaltetu edo biktima gisa, deklarazio hori egiterakoan dituen eskubideei buruzko informazioa helarazi zion polizia funtzionarioak.

⁴ Espainia. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. Estatu Aldizkari Ofiziala, 1995eko azaroaren 24a, 281 zenbakiduna - aurrerantzean, ZK-, 318. artikulua: “*El que intencionadamente ayude a una persona que no sea nacional de un Estado miembro de la Unión Europea a entrar en territorio español o a transitar a través del mismo de un modo que vulnere la legislación sobre entrada o tránsito de extranjeros, será castigado con una pena de multa de tres a doce meses o prisión de tres meses a un año. Los hechos no serán punibles cuando el objetivo perseguido por el autor fuere únicamente prestar ayuda humanitaria a la persona de que se trate. Si los hechos se hubieran cometido con ánimo de lucro se impondrá la pena en su mitad superior.*”.

⁵ ZK 313. artikulua: “*El que determinare o favoreciere la emigración de alguna persona a otro país simulando contrato o colocación, o usando de otro engaño semejante, será castigado con la pena prevista en el artículo anterior*”.

⁶ Atestatuari dagokionez, Prozedura Kriminalaren Legearen - aurrerantzean, PKL- honako artikulua tarteetan arautzen da: 282-298 artikuluetan, eta 770-772 artikuluetan. Segurtasun-indar eta -kidegoek, haien lanean prebentzio, egiaztapen eta ikerketak egin behar dituzte, delituzko izaera izan ahal duten egitateen gainean. Delituak jazarri behar dituzte, eta horretarako burutzen dituzten egintzei polizia eginbideak deritze. Polizia atestatuak, polizia eginbideei hasiera ematen die. Atestatua Polizia Judizialak delituzko egitateen inguruan burutu dituen eginbide guztien dokumentuzko euskarria da, egitate horien egileen identifikaziorako eginbideak barne hartuz. Bere izaera juridikoa dela eta, atestatuan jasotakoa ez du froga eraginkortasunik, bertako zati objektibo eta frogagarriak duten balioan eragotzi gabe. Beraz, atestatuaren salaketaren balioa du prozesu penalean. Honi dagokionez, GONZÁLEZ I JIMÉNEZ, ALBERT, *Las diligencias policiales y su valor probatorio*, J.M. Bosch Editor,artzelona, 2014, 322 or. Izan ere, honela jasotzen da PKLren 297. artikuluan.

Atestatuak garrantzi handia du prozesu penalean, bertan jasotzen dena finkatzen duelako maila handi batean prozesuaren ondorengo garapena. Atestatua dokumentuzkoa den neurrian, jaso behar duen informazioa ahalik eta modu zehatzean bildu behar da; hau da, Polizia Judizialak burutzen dituen eginbideak, deklarazioak, jasotako informazioak, eta delituzko zantzua den edozein inguruabar jaso behar ditu. Zentzu honetan ikus. *Memento*, Procesal Penal, Francis Lefebvre, Madril, 2016, 279. or.

Era berea, atestatuaren inguruan aritzen da SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, JOSÉ MIGUEL, “Atestado policial: algo más que una denuncia”, *Noticias Jurídicas*, 2010eko urtarrilaren 1ekoa. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/4510-atestado-policial:-algo-mas-que-una-denuncia/> [Azken kontsulta: 2021/03/20]

batzuen bidez, eta ondoren bere deklarazioa jaso zuten, salaketan adierazitako berdina mantenduz. Identifikazioa eginda zegoenean, Atzerriartasun Erregistro Nagusiari galdatu zioten horri buruzko informazioa⁷, honela poliziak Mariari buruzko datu gehiago izateko. Horrez gain, poliziak Catalina jatetxean lan egiten egon zela ziurtatu zuen. Beraz, atestatuan jasotakoa kontuan izanda, bi delituzko portaera ezberdindu ziren: Mariak bere lehengusina legez kontrako modu batean Bilbora heltzen lagundu zuela eta bere jatetxean lana eman ziola, lan baimena izan gabe.

2.3. Inkoazio-autoan jasotako egitate zigorgarri bakarra

Poliziak salaketa jaso eta aipatutako eginbideak burutu ostean, Instrukzioko Epaileari helarazi zion atestatua. Honek, auto bidez aurretiazko eginbideei hasiera eman zien kriminalitate zantzu arrazionalak zeuden aztertzeko helburuz ikerketa-eginbideak burutzeko aginduz⁸. Aldi berean, epaitegiak emandako autoaren berri eman zio fiskalari⁹. Beraz, aztertzen dugun kasuan, aurretiazko eginbideak irekitzen ditu Bilboko Instrukzioko 7. zenbakiko Epaitegiak, 2019ko urtarrilaren 29an. Egitateen atalean jaso zen Euskal Herriko Poliziaren Goi-Buruzagitzaren eskutik, Atzerriartasun eta Mugen Brigada zehazki, jasotako atestatua, Maria Montoyaren atxiloketa zela eta, pertsonen immigrazio klandestinoaren faboratzearen delituagatik.

Autoaren zuzenbide-arrazoibideetan jasotzen zenez, instrukzioko epaitegiak aurretiazko eginbideak irekitzen zituen, jasotako atestatuaren arabera, delitu baten existentzia posiblea aurreikusten zuelako: pertsonen immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitua¹⁰.

Kontuan hartu behar dugu instrukzioko epaileak hasierako kalifikazioan aipatutako delituaren zigorra. Zentzu honetan, pertsonen immigrazio klandestinoaren faboratzearen delituarentzat aurreikusitako gehienezko zigorra urte batekoa da, nahiz eta goiko erdira igo daitekeen portaera hori aberasteko helburuarekin egiten bada. Beraz, zigorra zein den kontuan izanda, martxan kasu honetan martxan jarritako prozesuaren izapidetza prozedura laburtuaren esparruari dagokio¹¹.

2.4. Prozesuan aurrera eramane ziren ikerketa eginbideak

Kontuan izanda aztertzen dugun kasuaren egitateak eta zigorra zeintzuk diren, prozesua aurretiazko eginbide moduan zabaldu zen. Prozedura laburtuan ikerketa prozesalak aurrera eramaten dira prozesuaren ikertuak aurrera eramandako delituzko egitate horien inguruan; kasu honetan,

⁷ Kasuaren espedientean jasota dagoen Atzerriartasun Erregistro Nagusiak bidalitako dokumentutik ateratako informazioa.

⁸ Autoaren helburuaren harira, AGE 5731/2014, 2014ko urriaren 22ko, 5. OJ. Honakoa adierazten du: *“todo el contenido del auto, no puede sustraerse de la decisión que adopta: iniciar la investigación sobre unos hechos que verosíblemente aparentan ser delito”*.

⁹ Honi dagokionez, PKLren 777. 1 artikulua kontuan hartu behar dugu: *“El Juez ordenará a la Policía Judicial o practicará por sí las diligencias necesarias encaminadas a determinar la naturaleza y circunstancias del hecho, las personas que en él hayan participado y el órgano competente para el enjuiciamiento, dando cuenta al Ministerio Fiscal de su incoación y de los hechos que la determinen. Se emplearán para ello los medios comunes y ordinarios que establece esta Ley, con las modificaciones establecidas en el presente Título”*.

¹⁰ ZK 318. artikulua.

¹¹ PKLren 757. artikuluaaren arabera.

immigrazio klandestinoaren faboratzearen tipo penalak jasotako elementuak argitzera bideratu zituzten eginbide horiek. Prozesuaren parte diren alderdiek eginbideen berri izan zuten, zuten posizioaren arabera zituzten eskubideen bermean¹².

Kasu honetan honako eginbideak burutu ziren: Maria Montoyaren zitazioa eta deklarazioa, Catalina Montoyaren deklarazioa, aurrekari penalen ikerketa, Lan Inspekzioaren informea, hegazkin txartelen dokumentazioa biltzea, jateak izan dituen langile guztien kontratuen ikerketa eta lehengusinen arteko *whatsapp*-eko elkarrizketen kopia, besteak beste. Horien artean, alde batetik, Mariaren zitazioa eta deklarazioa, eta, bestetik Catalinaren deklarazioa, jarriko dugu arreta, aztergai den objektuan eragina dutenak direlako.

Aurretiazko eginbideei dagokienez, aipatu behar dugu inputatuaren deklarazioa ezinbesteko eginbide bat dela prozesua prozedura laburtuaren bitartez izapidetu ahal izateko¹³. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, auziperatuak ikertu gisa deklaratu behar du aurretiazko eginbideen fasea bukatu baino lehen, ezin delako aurretiazko eginbideak prozedura laburtu transformatzeko autoa eman deklarazio hori egin gabe¹⁴. Kasu honetan, azpimarratu behar genuke deklaratu baino lehen, Maria Montoyak zitazioa jaso zuela -legezko formalitate guztiekin- eta bertan, ikertu moduan deklaratzera deitzen zitzaiola, immigrazio klandestinoaren delitu bat egotzita¹⁵.

PKLren 775. artikulua arautzen duen moduan, ikertuaren deklarazioa zenbait bermeekin bete behar da¹⁶. Aurretik, bere eskubideei buruz informazioa izan behar du, eta epaileak leporatzen zaizkion egitateak jakinarazi behar dizkio. Zentzu honetan, ikertuak soilik deklaratu ahal du baliozko modu batean leporatzen zaizkion egitateak ezagutu ondoren. Izan ere, Legeak galdatutako betekizun hori bete zen Mariarekin; hau da, deklarazioa jakinarazi zitzaion ikertu gisa deklaratu zuela immigrazio klandestinoaren delitu bat osatu ahal zuten egitateengatik¹⁷. Gainera, Mariak deklaratu zuenean bere abokatua aurrean egonik egin zuen¹⁸.

¹² PKLren 774. artikulua arautu egiten da. Zentzu horretan, Wolters Kluwer, *Diligencias previas*. Eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAU MjEzNTtLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQOGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAiOsOcTUAAAA=WKE#15 [Azken kontsulta: 2021/03/25]

¹³ PKLren 779.1.4º artikulua adierazten duen moduan.

¹⁴ Honen harira, KAE 277/1994, 1994ko urriaren 17koa, 2. OJ. Honakoa adierazten du: *“nadie puede ser acusado sin haber sido oído por el Juez de instrucción con anterioridad a la conclusión de las diligencias previas”*. Era berean jasotzen da KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21koa, 2. OJn.

¹⁵ Garrantzitsua da adieraztea zitazioa soilik egotzen zitzaiola delitu bat: immigrazio klandestinoaren delitua. Hau da, bertan ez zen beste delitu baten adierazpenik egin, egitate bakarra leporatzen zitzaion.

¹⁶ Horren harira, aipatu behar da PKLren 779.1.4 artikulua, honakoa jasotzen duena: *“Si el hecho constituyera delito comprendido en el artículo 757, seguirá el procedimiento ordenado en el capítulo siguiente. Esta decisión, que contendrá la determinación de los hechos punibles y la identificación de la persona a la que se le imputan, no podrá adoptarse sin haber tomado declaración a aquélla en los términos previstos en el artículo 775”*. Hau da, prozedura laburtuak soilik egin ahal du aurrera ikertuak PKLren 775. artikulua jasotako moduan deklaratu badu.

¹⁷ Kasu zehatz honetan epaitegiak egindako zitazioa honakoa adierazi zen: *“Por haberse así acordado en la resolución dictada en el procedimiento arriba referido, deberá comparecer ante este Órgano Judicial, el próximo día XXXX, a fin de prestar declaración en calidad de investigada, sobre un delito de favorecimiento de la inmigración ilegal ocurrido el XXXX”*.

¹⁸ FERNÁNDEZ-GALLARDO FERNÁNDEZ-GALLARDO, JAVIER ÁNGEL, “La asistencia letrada en diligencias de investigación”, AAAA, *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, 69. zk., 2016, 323. or. Bertan adierazten da prozesu penalararen parte diren kideek haien defentsarako eskubidea bermatua izateko abokatu baten laguntza izan behar dutela, izan ere, gaur egun autodefentsa alde batera geratu delako. Hona

Deklarazioaren edukiari dagokionez, gogorarazi beharko genuke helburu nagusia delituzko egitateetan inputatuak izan ahal duen erantzukizuna aztertzea dela, bai eta bere kontra dauden karguetatik errugabetzea¹⁹. Horren harira, Mariaren deklarazioan, honek azaldu zuen bere lehengusinarekin gertatutakoa. Izan ere, deklarazio horretan alderdiek bideratutako itaunketa guztiak legez kontrako immigrazio delituaren ingurukoak izan ziren, eta ez zen langileriaren eskubideen kontrako delituaren inguruko galderarik burutu. Hau da, ez zitzaion langileen eskubideen kontrako delitu baten egozketa egin, ezta hori ondorioztatua izan ahal litzatekeen egitateen ingurukoa ere. Gainera, honen eta bere lehengusinarekin arteko *Whatsapp* elkarrizketak ikertu zituen polizia judizialak eta hauek Mariak esandakoa frogatzen zuten.

Beraz, PKLren 775. artikuluko betekizuna bermatuta geratu zen deklarazioan, Mariari immigrazio klandestinoaren delitu baten ikertua zela adierazi ziotelako eta deklaratu zuelako horren inguruan. Hortaz, esan genezake PKLren 779.1.4 artikulua betekizuna ere errespetatu egin zela ikertu moduan Mariari deklarazioa hartuz, eta honela, instrukzio fasea amaitu ostean, prozesua prozedura laburtuaren bidetik jarraitzea ahalbidetuz. Auzitegi Gorenak adierazi egiten duen moduan, deklarazioa legeak adierazitako moduan hartu egiten bazaio ikertuari, prozesuak aurrera jarraituko du arazo gabe, prozesuaren garapen egokia ematen delako²⁰. Beraz, esan daiteke prozesu penalak duen berme hori errespetatua izan zela Mariaren kasuan, immigrazio klandestinoaren delituagatik ikertua izan zelako.

Beste aldetik, Catalina Montoyak, bere deklarazioan salaketan adierazitakoa berretsi zuen, baina indarra eman zion ideia honi: Mariak Bilbora etortzera bultzatu zuela adierazi zuen, bere jatetxean laguntza behar zuelako eta bertan lan egiteko. Deklarazio horretan Catalinak esandakoa garrantzitsua da, eragina izan zuelako ondoren fiskalak osatuko zituen akusazioetan. Izan ere, adierazpen horrekin Catalinak ulertarazten du Bilbora bidaiatu egin zuela lan kontratu baten promesaren iruzurraren menpe.

hemen zati bat: *“En la jurisprudencia constitucional se ha producido una marcada imbricación entre el derecho de defensa y el de asistencia letrada, relegando a un plano subsidiario el derecho a la autodefensa del ciudadano.”*

¹⁹ Honi dagokionez, VÁZQUEZ IRUZUBIETA, CARLOS, “Comentario a la Ley de Enjuiciamiento Criminal (actualizada por las Leyes 13/2015, y 41/2015, de 5 de octubre)”, *vLex*, Madrid, 2015, 610-619 or.

²⁰ AGE 229/2018, 2018ko maiatzaren 17koa, 18. OJ.

3. PROZESUAREN GARAPENA: EGINTZA PROZESALEN IBILBIDEA ETA USTEKABEKO AKUSAZIOA

Aztertzen ari garen egitateen lehendabiziko pausuak ezagutu ondoren, prozesuaren garapenaren azterketari ekingo diogu. Izan ere, atal honetan lanaren aztergaia den arazo nagusia mahaigaineratu eta landu egingo dugu.

3.1. Transformazio-autoa

3.1.1. Ikertutako egitateen garrantzia

Egitateak eta egileen inguruan datuak argitzeko beharrezkoak diren eginbideak gauzatu ostean, instrukzioko epaileak aurretiazko eginbideak ixteko autoa emango du²¹. Ebazpen horrek instrukzio faseari bukaera ematen dio, beraz, prozesu penalean zigortu daitezkeen egitateak argitzeko beharrezkoak diren eginbideak burututa egon behar dira prozesuan aurrera egin ahal izateko. Honen harira -nahiz eta aurrerago landuko dugun-, ezinbestekoa da aipatzea auto honek duen funtzio bikoitza: prozesuaren objektua izango denaren esparrua finkatzea eta prozesuaren subjektu pasiboaren inputazio formala egitea²².

PKLren 779. artikulua arabera, aurretiazko eginbideak burutu ostean, epaileak prozesuari bukaera emango dio auto bidez. Auto horretan egingo duen adierazpenari dagokionez, epaileak aukera ezberdinak ditu²³, baina aztergaia den kasuan, prozedura laburtu moduan aurrera jarraitzea erabaki zuen (PKLren 779.1.4^o artikulua)²⁴; izan ere, Mariaren egintza immigrazio klandestinoaren laboratzearen delitua izan ahal zelako²⁵. Horrenbestez, PKLren 757. artikuluari jarraiki, prozedura laburtuaren esparruan kokatu behar gara. Aurretiazko eginbideak prozedura laburtu bihurtzean, ahozko epaiketa prestatzen duen fasea -tarteko fasea deitzen dena- irekitzen da, prozesuari jarraipena emanez.

²¹ PKLren 779. artikuluan aipatzen dena.

²² Auto honi dagokionez, ARMENGOT VILAPLANA, ALICIA, *El imputado en el proceso penal*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2013, 107. or. Autorearen hitzetan: “*El auto de continuación se presenta como una resolución de clausura de la instrucción y como una auténtica imputación formal, en la medida en que declara expresamente la imputación y fija provisionalmente el objeto del proceso*”.

²³ PKLren 779. artikulua arabera, aurretiazko eginbideak burutu ostean, epaileak prozesuari bukaera emango dio auto bidez, honako aukerak izanik (779.1.1 art.): prozesua moldatzea, egitateak delitu arin moduan finkatuz, eginbideak eskuduna den jurisdikziora bidaliz; egitatea eskumen militarreko esparruari badagokio, eskuduna den organoari helaraziko zaio inhibizio bidez; ikertu guztiak zigortzeko adintxikikoak izanez gero, adintxikikoen Fiskaltzari helaraziko zaio kasuaren tramiteak martxan jartzeko; prozesuarekin jarraitzeko ebazpena ematea, prozedura laburtuarekin jarraituz (779.1.4 art.); eta, ikertuak bere abokatuaren laguntzarekin leporatzen zaiona onartuz gero sede judizialean, eta egitateak PKLren 801. artikuluko mugen barruko zigor bat izango duen delitua ondorioztatuz, prozesuaren beste alderdiak deituak izango dira akusazio-idazkian adostasuna adierazteko, eta onespina ematekotan, prozesua aurrera egingo du PKLren 800. eta 801. artikuluetan jasotako eginbideen arabera, premiazko eginbideak inkoatuz.

²⁴ PKLren 779.1.4. artikulua aipatzen duena: “*Si el hecho constituyera delito comprendido en el artículo 757, seguirá el procedimiento ordenado en el capítulo siguiente. Esta decisión, que contendrá la determinación de los hechos punibles y la identificación de la persona a la que se le imputan, no podrá adoptarse sin haber tomado declaración a aquélla en los términos previstos en el artículo 775*”.

²⁵ ZK 318 bis 1. artikulua.

Transformazio-autoak²⁶ aurretiazko eginbideei bukaera ematen die, prozesuari jarraipena emanez. Hortaz, momentu honetan prozesuaren tarteko fasea zabaltzen da, eta tarte horretan aukera ematen zaie fiskalari eta prozesuan parte diren beste akusazioei kasuaren artxibatzea edo ahozko epaiketaren irekiera eskatzeko²⁷.

Autoak gutxieneko eduki bat izan behar du bere funtzioa bete ahal izateko: egitate zigorgarriak eta horiek inputatzen zaizkion pertsonen identifikazioa. Auzitegi Gorenak zehaztutakoaren arabera, prozesuaren objektua finkatzen duten egitatezko elementuak alderdi akusatzaileek mugatzen dituzte. Izan ere, egitate horiek autoak zehaztutako markoaren barruan kokatu behar dira eta horren ondorioz, bertan jasotako pertsonak soilik akusatuak izan ahal dira bertan zehaztutako egitateengatik. Honek esan nahi du transformazio-autoak egun batean prozeduraren objektua izango dena mugatzen duela²⁸. Horretaz gain, arrazoitze juridikoa ere jaso behar da, transformazioa justifikatzeko, eta egitateen balorazio juridikoa egiteko²⁹.

Kasura ekarriz, autoaren funtzioaren analisia egin baino lehen, momentu prozesal bakoitzean zeintzuk kontuan hartutako egitateak izan diren argitu behar dira.

3.1.1.1. Egitateak salatutako momentutik ikertuak izan arte

Prozedura hau, hasiera batean, immigrazio klandestinoaren faboratzearen delituagatik martxan jarri zen. Lehen adierazi dugun moduan, 2019ko urtarrilaren 15ean ertzain-etxean salatutako egitateak hauek izan ziren: Mariak Catalinari Bilbora etortzea proposatu zion, berak Venezuelan zuen bizitza kaskarragatik. Mariak hegazkin erreserba egin zion, eta bere etxean geratzea ahalbidetu zion, berarentzat jatetxean lan eginez. Mariak beti beldurtzen zuen Catalina bere legez kontrako egoeragatik. Haien arteko harreman txarragatik Mariak Catalina jatetxetik kanporatu zuen eta bere etxetik joan zen.

²⁶ Prozedura laburtuari hasiera ematen dion autoak izen ezberdinak ditu, izan ere, doktrinak eta jurisprudenziak transformazio autoa deitzen duten arren, legeak ez du modu horretan jasotzen. Honi dagokionez, NAVARRO MASSIP, JORGE, “El auto de incoación de procedimiento abreviado: la determinación de los hechos punibles, una exigencia sin garantías. A propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo (Sala de lo Penal, Sección 1ª) núm. 251/2012 de 4 abril”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 5. zk., 2012. Bertan, erreferentzia egiten dio auto honi bi modu ezberdinetan: “*auto de incoación de procedimiento abreviado*” eta “*auto de transformación*”. Edo IBARRA SÁNCHEZ, JUAN LUIS, “Alcance y finalidad del auto de transformación en procedimiento abreviado del Artículo 779.1.4º LECR, como primer juicio de acusación y de probable responsabilidad penal. El auto núm. 627/2014 de 7 de noviembre, de la audiencia provincial de Palma, caso Nóos”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 37. zk., 2015. Bertan auto horri erreferentzia egiten dio “*auto de transformación de diligencias previas en procedimiento abreviado*” edo “*auto de transformación*”. Beraz, argi dago autoreen eta juridprudentziaren aldetik transformazio autoa deitu egiten zaiola (baina hori ez da izendatzeko erabiltzen den bakarra) aurretiazko eginbideei bukaera ematen dion autoari, legeak modu horretan jasotzen ez duen arren.

²⁷ Wolters Kluwer, *Auto que pone fin a las diligencias previas*. Eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAUNDMzNjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhIQaptWmJOcSoAK35vjDUAAAA=WKE [Azken kontsulta: 2021/03/27]

²⁸ AGE 1061/2007, 2007ko abenduaren 13koa, 3. OJ.

²⁹ Argi uzten du BELTRÁN MIRALLES, SOFÍAK, “Finalización de las diligencias previas: la continuación del procedimiento abreviado”. SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011, 569. or.

3.1.1.2. Auto honetan jaso ziren egitateak: ikertutako eta autoan sartu zenaren arteko desberdintasuna

Maria deklaratzera deitu zutenean jakinarazi zizkioten egitateak immigrazio klandestinoaren delituaren ingurukoak izan ziren. Hau da, ikertu moduan deklaratzera deitzean, inputatu egin zuten bere lehengusina legez kontrako modu batean Espainian sartzen eta bertan geratzen lagundu zuelako, ostatua eta lana emanez.

Autoan ez ziren poliziak hasierako momentutik ikertutako egitate guztiak sartzen, baizik eta soilik prozesuan garrantzitsuak izan ahal zirenak. Honakoa jaso zen transformazio-autoan³⁰: 2018ko abuztuan, Maria Montoyak, Catalina bere herrialdean zuen bizitza eskasa zela eta, Espainiara turista gisa bidaiatzea proposatu zion, ondoren bertan legez kontrako modu batean geratzeko; bere jatetxean lan bat emango zion eta hegazkin txartela ordainduko zion. Proposamena onartuz, Caracasetik Parisera, eta bertatik Bilbora bidaiatu zuen Catalinak. Bilbora heldu zen turista moduan 2018ko abuztuaren 25ean. Mariak hartu egin zuen ostatua eta lana emanez. Horrek bazekien bere negozioan lan egiten zuen pertsona ez zuela lan egiteko baimenik. Beraz, salatutako egitateekin aldentuz, epaitegiak immigrazio klandestinoaren delitu bat osatzen duten egitateak bakarrik jaso zituen bere erabakian. Honek esan nahi du autoan ez zela islatuta geratu Catalinak bere deklarazioa egin zuenean egitateak kontatzerakoan egin zuen zehaztasuna. Hau da, ez zen adierazi Mariak Catalina bultzatu egin zuela Bilbora bidaiatzera, bere jatetxean laguntza behar zuelako eta bertan lan egiteko³¹.

Hau horrela, autoaren zuzenbide arrazoibideetan, PKLren 779.1.4 artikuluari jarraiki, beharrezkoak ziren eginbideak burututa zeudelarik, instrukzioko epaileak, egitateek prozedura laburtuari dagokion delitu bat osatzen zutela ulertu zuen, eta prozedurarekin jarraitzeko agindua eman zuen PKLko 780. eta hurrengo artikuluek araututako moduan. Epaileak adierazi zuen aipatutako egitateek immigrazio klandestinoaren delitua osatu ahal zutela, ZKren 318. bis 1. artikuluan aurreikusitakoa, eta Maria Montoya honen ustezko egiletzat hartu zuen.

Xedapenezko atalean jaso zen eginbideek aurrera jarraitzen zutela, Maria Montaya ikertu izanda. Honen aurrean, 10 eguneko epean fiskalak ahozko epaiketaren irekiera eskatu behar zuen, edo kausaren artxibatzea. Kasu honetan, ahozko epaiketaren irekiera eskatu zuen fiskalak, eskaera hori akusazio-idazkiaren bidez gauzatu.

Auto hau inpugnatzeko bi aukera daude: erreforma errekurtsioa tarteratuz 3 eguneko epean, edo/eta apelazio errekurtsioa tarteratuz 5 eguneko epean³².

³⁰ Transformazio-autoan honakoa jasotzen da zehazki: “*Durante el mes de julio del 2018 XXX dada la precaria situación en que se encontraba en su país, ofreció a XXX que viajara a España como turista para luego permanecer en este país de forma ilegal, proporcionándole a esos efectos un empleo en su negocio (...) y pagándole el billete de avión. Habiendo aceptado la señora XXX la propuesta, voló desde Caracas, vía París, hasta Bilbao, a donde llegó como turista el día 25 de agosto de 2018, siendo recibida por su prima, quien la alojó y proporcionó el empleo*”.

³¹ Adierazpen horretatik ZKren 313. artikulua jasotako egintza ondorioztatu ahal da.

³² PKLren 766. artikuluan jasotakoak. Izan ere, autoa errekurritzeko aukeraren inguruan aipamena egiten dugu lanean ondoren horri erreferentzia egingo diogulako.

3.1.2. Transformazio-autoaren funtzioa

Instrukzioa bukatu ostean, transformazio-autoak aurretiazko eginbideak prozedura laburtu bihurtzen ditu eta horren izapideen bitartez jarraitzea agintzen du. Lehen adierazi dugun moduan, bertan zehaztu behar dira egitate zigorgarriak eta hauek nori inputatzen zaizkion.

Batetik, prozedura laburtuaren esparruan, transformazio-autoak egitate zigorgarrien zehaztapena galdatzen du, prozesuaren objektua izango dena bereziki mugatuz³³. Legeak arautzen du egitateen mugaketa hau ezinbestekoa dela, akusazioak modu aske batean ez jarduteko eta prozesuaren subjektu pasiboaren defentsarako eskubidea bermatzeko³⁴.

Bestetik, subjektuari dagokionez, ikertu gisa deklaratu behar izan du autoa eman baino lehen, eta, Konstituzioa Auzitegiaren doktrinari jarraiki, betebeharrak ez ditu salbuespenak onartzen³⁵. Autoa eman ahal izateko, aurretiazko eginbideen atalean jaso dugun moduan, ezinbestekoa da ikertuari deklarazioa PKLren 775. artikuluko baldintzetan hartzea³⁶. Ikertu gisa deklarazioa hartu ez bazaio akusatua izango denari, ezin izango da autoa eman. Hau da, epaileak ikertuari modu ulergarri batean inputatzen zaizkion egitateen inguruko informazioa eman behar dio. Praktikan, arazoa sortu egiten da atal honetan, normalean ikertuari deklaratu duen egitateak ezagutzen dituen galdetzen zaiolako, modu zehatz batean galdetu gabe inputatua izaten ari den egitateak ezagutzen dituen. Ikertuak, nahiz eta deklaratu duenaren inguruan informazioa izan, ez du zertan jakin behar egitate horiek penalki garrantzitsuak diren eta horiengatik inputatua izango dela. Beraz, transformazio-autoak soilik beteko du legezko galdakizuna inputatuak diren egitateak inputatuari galdetu bazaizkio bere deklarazioan³⁷.

Transformazio-autoan egitate zigorgarriak mugatzean, hauek lotura izan behar dute ikertua sede judizialean azaltzean zehazki inputatu zizkioten egitateekin. Prozesua aurrera egin ahala,

³³ PKLren 779.1.4 artikulua.

³⁴ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

³⁵ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

³⁶ PKLren 775. artikulua honela dio literalki: *“1. En la primera comparecencia el Juez informará al investigado, en la forma más comprensible, de los hechos que se le imputan. Previamente, el Secretario judicial le informará de sus derechos, en particular de los enumerados en el apartado 1 del artículo 118, y le requerirá para que designe un domicilio en España en el que se harán las notificaciones, o una persona que las reciba en su nombre, con la advertencia de que la citación realizada en dicho domicilio o a la persona designada permitirá la celebración del juicio en su ausencia en los supuestos previstos en el artículo 786. Tanto antes como después de prestar declaración se le permitirá entrevistarse reservadamente con su Abogado, sin perjuicio de lo establecido en la letra c) del artículo 527. 2. Cuando del resultado de las diligencias se produzca algún cambio relevante en el objeto de la investigación y de los hechos imputados, el Juez informará con prontitud de ello al investigado. Esta información podrá ser facilitada mediante una exposición sucinta que resulte suficiente para permitir el ejercicio del derecho a la defensa, comunicada por escrito al Abogado defensor del investigado”*.

³⁷ ESCOBAR JIMÉNEZ, RAFAELek honela adierazten du: *“Hay que insistir, no obstante, en que la declaración del imputado no funciona respecto del auto del art. 779.1.4.ª como un presupuesto meramente formal; en otras palabras, esta resolución sólo colmará la exigencia legal si los hechos que incluye han sido indagados en el interrogatorio practicado a aquél. Piénsese, por ejemplo, en una declaración exclusivamente realizada sobre hechos relativos a una conducción bajo la influencia de bebidas alcohólicas y en un auto del art. 779.1.4.ª que incluyera, además de dichos hechos, la negativa a realizar la prueba de determinación del grado de impregnación alcohólica. Para que la resolución sea respetuosa con el tenor del mencionado precepto rituario es preciso que vuelva a oírse al imputado sobre el segundo de los extremos apuntados”*. “Aspectos de la fase intermedia del procedimiento abreviado”, *Diario La ley*, 5967. zk., 2004ko martxoaren 3koa.

lehenengo agerpenean leporatuak izan ez diren eta akusazioa haien gainean eratu ahal diren egitate berriak agertzean, inputatuari jakinarazi beharko zaio, horiei dagokienez ere defentsarako eskubidea aurrera eraman ahal izateko³⁸.

Horren harira, aipagarria da transformazio-autoak akusazio printzipioaren berme gisa funtzionatzen duela. Hau da, prozesuaren alderdi objektiboa eta subjektiboaren esparrua mugatuta geratzen denez, akusazioa osatzerakoan eta horren gaineko zigorra ezartzeko beharra egoterakoan, muga horiek errespetatu behar dira. Ildo honetatik, Auzitegi Gorenak adierazten du akusazioak bere pretentsioak osatzean, transformazio-autoak mugatutako objektuaren barruan egin beharko duela, ondoren auzitegiak horren gainean ebatzi egin behar duelako³⁹.

Horrenbestez, transformazio-autoak, prozesu penala prozedura laburtuaren bidetik jarraitzeko beharrezko izapide bat izateaz gain, dituen bi funtzio nagusiak aztertuko ditugu: prozesuaren objektuaren mugak zehaztea eta inputazio formala egitea.

3.1.2.1. Prozesuaren objektuaren mugak finkatzea

Prozesuaren objektua mugatzea prozesuaren ezinbesteko ukanbehar bat da⁴⁰. Instrukzioko epaileak egitate zigorgarriak eta hauek inputatzen zaizkien pertsonak zehaztu behar ditu autoan, honela, akusatzaileek beraien akusazio-idazkietan zehaztuko dituzten egitate eta pertsona akusatuen esparrua finkatuz.

Akusazio-printzipioari jarraiki, prozesu penal baten objektua akusazio idazkiek mugatzen dute behin betikoz, eta honela, ezinbestekoa izango da akusazioaren eta epaiaren erabakien arteko lotura egotea. Baina, akusazio-idazkietan jasotako objektuaren jatorria transformazio-autoak mugatzen du. Epaileak auto horren bidez prozesuaren esparrua zehazten du, eta horren barnean aritu behar dira akusazio idazkiak, prozesuaren objektua zentzu hertsian finkatzen dituztenak. Auto hori prozesuaren lehen filtroaren funtzioa betetzen du, prozesuaren objektuaren mugak finkatuz⁴¹.

Autoak alderdiak lotetsi egiten ditu inputatuak diren egitateen eta hauen erantzuleak diren pertsonen dagokionez, baina ez ditu lotzen epaileak bertan jasotzen dituen kalifikazioei dagokienez. Hau da, legeak galdatzen du autoan jaso behar direla inputatzen diren egitateak, baina ez du galdatzen delituzko egitate horiek osatzen duten delituzko tipo zehatzaren kalifikazioa egitea. Epaileak kalifikazioa eginez gero, honek ez ditu alderdiak lotetsiko behin-behineko ondorioen akusazio idazkiak osatzean, bereziki fiskala. Izan ere, idazkietan jasotzen den tipifikazioa epailearen autoan jasotako egitateetan oinarrituta egon behar da⁴². Hortaz, auto horrek ez du fiskalak eta bestelako akusazioen akusatzeko funtzioa betetzen, eta autoan jasotzen ez bada delitu zehatz bat, horrek ez du

³⁸ Europar Batasunaren 2012/13 Direktiba (EB), Europar Parlamentu eta Kontseiluarena, 2012ko maiatzaren 22koa, prozesu penaletan informatua izatearen eskubidearen ingurukoa.

³⁹ Zentzu honetan ikusi Auzitegi Goreneko epai hauek: AGE 627/2019, 2019ko abenduaren 18koa, 28. OJ; AGE 1061/2007, 2007ko abenduaren 13koa, 3. OJ; AGE 179/2007, 2007ko martxoaren 7koa, 4. OJ; besteak beste.

⁴⁰ Honi dagokionez, AGE 1061/2007, 2007ko abenduaren 13koa, 3. OJ. Honakoa jasotzen da: “*La determinación del objeto del proceso constituye, sin la menor duda, una cuestión esencial del mismo.*”

⁴¹ Iritzi honetakoa da NAVARRO MASSIP, JORGE, *op. cit.*

⁴² Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

eragozten delitu hori akusazioaren objektua izateko aukera, beti ere akusatua deklaratu zuenean delitu hori ondorioztatu ahal den egitatearengatik inputatua baldin bazegoen⁴³.

Prozesu penalaren objektuari erreferentzia egiterakoan, kontuan hartu behar dira bi alderdi: subjektiboa eta objektiboa.

Alderdi subjektiboari dagokionez, instrukzioan ikertu izaera izan ez duen pertsona bat ezin da akusatua izan. Edo beste hitz batzuetan esanda, prozesuaren subjektu pasiboa akusatua izan ahal izateko aldeztu aurretik ikertua izan beharko da. Beraz, aurretik aipatutako moduan, instrukzioan inputatzen zaizkion egitateen inguruko deklarazioa eman behar du ikertuak, ondoren bere kontrako akusazioa eratu ahal izateko. Beti errespetatu behar dira akusatua den pertsonaren defentsarako eskubideak. Hau da, deklarazio hori ez da soilik formaltasun bat transformazio-autoa eman ahal izateko; deklarazioa ematerakoan, ikertuari ondoren autoan jasoko diren egitateen ingurukoa izan behar da, autoak duen legezko funtzioa beteta egoteko⁴⁴. Zentzu honetan, Konstituzio Auzitegiak adierazi du ez dela babesgabe egoera bat sortuko epaian zigortua den pertsonak ezarri zaion tipo penalaren elementu guztien inguruan defendatzeko aukera izan badu prozesuan zehar⁴⁵. Hortaz, akusazioek egitate eta inputatuen muga errespetatuz, osatzen duten akusazioaren inguruan egoki uste duten kalifikazio juridikoa finkatu ahal dute.

Kasu honetan, alderdi subjektiboari dagokionez, ez dugu arazorik ikusten. Hau da, Maria Montoya delituzko egitateen ikertua da, eta ez dago zalantzarik horren inguruan. Aurretiazko eginbideetan, zitazioa ikertu moduan egin zitzaion, eta deklarazioa eman zuen immigrazio klandestinoaren delitu bat osatzen duten egitate batzuen inguruan⁴⁶. Maria agertzen zen auzipetu moduan transformazio-autoan eta -aurrerago ikusiko dugunez-, ahozko epaiketa irekitzen duen autoan ere bai. Beraz, prozesuaren alderdi subjektiboa modu argi eta egoki batean finkatuta zen⁴⁷.

Beste alderdia egitate objektiboak dira. Prozesu penalaren oinarrizko eskubideen bermeari eta legezkoatasun printzipioari erreferentzia eginez, prozesuaren esparru objektiboa mugatzea ezinbestekoa da, prozesuaren akusazioa osatzeko beharrezko egitateak zeintzuk diren finkatuz. Akusazio idazkiak ezin du autoak zehaztutako mugak gaintitzen dituen egitaterik jaso. Egitateen

⁴³ Honela jasotzen du FERNÁNDEZ-GALLARDO FERNÁNDEZ-GALLARDO, JAVIER ÁNGELek, *Cuestiones actuales del Proceso Penal*, Ediciones Experiencia, Barcelona, 2015, 175.or.

⁴⁴ Ildo honetan sakontzeko, ESCOBAR JIMÉNEZ, RAFAEL, “Aspectos de la fase intermedia del procedimiento abreviado”, *Diario La ley*, 5967. zk., 2004ko martxoaren 3koa.

⁴⁵ Konstituzio Auzitegiak ideia hori epai hauetan islatzen du: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJ; KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21koa, 2. OJ; KAE 7/2001, 2001eko apirilaren 2koa, 3. OJ; KAE 134/1986, 1986ko urriaren 29koa, 2. OJ.

⁴⁶ Zitazioan ikertu moduan deitu zuten: “*Por haberse así acordado en la resolución dictada en el procedimiento arriba referido, deberá comparecer ante este Órgano Judicial, el próximo día XXXX, a fin de prestar declaración en calidad de investigada, sobre un delito de favorecimiento de la inmigración ilegal ocurrido el XXXX*”.

⁴⁷ Aipagarria da ORTEGO PÉREZ, FRANCISCOk adierazten duena: prozesu penal baten garapenean subjektu pasiboa fase ezberdinetatik igaro egiten da. Beraz, oso garrantzitsua da pertsona horri momentu bakoitzean dagokion egoera prozesala ezberdintzea, prozesuan esanahi ezberdinak dituelako. Gaur egun, instrukzioan ikertu moduan egin behar zaio erreferentzia subjektu pasiboari, inputatu hitzak sozialki erruduntasun konnotazioa duelako. Era berean, auzipetua izango da prozesua aurrera egin ahala, pertsonaren kontrako inputazio formala egin ostean (prozedura arruntean prozesatze autoaren bidez egiten dena). Hauek dira lege prozesalak erabiltzen dituen terminoak, baina, prozesuan oraindik inputatu edo akusatu hitzak erabili egiten dira. “Reflexiones acerca de la imputación y los estatus procesales de «investigado» y «encausado»”, *Justicia: Revista de derecho procesal*, 1. zk, 2016, 204 or.

muga ezegokia dela uste badute akusazioek, autoa errekurritzeko aukera dute⁴⁸. Ondorioz, transformazio-autoak epaituak izango diren egitateak jaso behar ditu. Legeak, ukanbehar hau galdatzen du akusazio idazkien mugen berme gisa. Epaituak izango diren egitateak inputatu gisa akusatua deklaratu duen egitateak izan behar dira. Hau da, Konstituzio Auzitegiak adierazten duen moduan, inputatu gisa deklaratzeko ez da tramite soil bat, legezko betebeharra baino. Autoan egitate gehiago sartu behar izanez gero, akusazioa osatzen duten alderdiak izan beharko dira hori errekurritu beharko dutenak, horien akusazioa mugatzen duelako horrek.

Kasura ekarriz, Mariak instrukzio fasean immigrazio klandestinoaren delituarekin harremana duten egitateen inguruan zitatua eta ikertua izan zen. Hau da, bere deklarazioan soilik horren inguruan galdetu zioten. Beraz, autoak jasotako egitateen esparrua egokia da.

Ezin da ahaztu autoaren helarazpena alderdi guztiei egiten zaien arren, akusatzaileak direla horren inguruko iritzia ematen dutenak. Hau da, akusatzaileak dira autoa jaso ostean haien idazkien bidez prozesuari jarraipena emateko aukera dutenak. Defentsari dagokionez, nahiz eta errekurritzeko aukera izan, prozesuaren momentu horretan, ez du kausaren artxibatzea eskatzeko ahalmenik⁴⁹.

3.1.2.2. Prozesu penaleko subjektu pasiboaren inputazio formalak

Prozesu penalaren instrukzio fasean prozesuaren legitimazio pasiboa finkatzeko helburua du, aurretiazko inputazio judizial bat eginez. Izan ere, prozedura laburtuan ez da existitzen prozedura arrunterako aurreikusita dagoen prozesatze autoa⁵⁰. Hori dela eta, auto hori ez existitzeak suposatzen ahalko luke ikertua inputazio formalaren bermea ez lukeela izango. Ez luke izango inputatzen zaizkion egitateak ezagutzeko aukera, ezta defentsarako eskubideaz baliatzeko aukera (ahozko epaiketa hasi baino lehen eta akusazioa eman baino lehen). Hori gertatuko balitz, prozesu penalaren alderdi pasiboa babesgabe egoera batean egongo litzateke, bere defentsarako eskubidea indargabetuz eta ustekabeko akusazioa bultzatuz. Egoera honen aurrean, doktrina eta jurisprudentziaren iritziz, inputazio formalak osatzeko funtzioa prozedura laburtuan transformazio-autoak betetzen du, prozesatze autoak prozedura arruntan betetzen duen funtzioa ordezkatzuz⁵¹.

⁴⁸ Transformazio-autoan honakoa jasotzen da zehazki: “*Durante el mes de julio del 2018 XXX dada la precaria situación en que se encontraba en su país, ofreció a XXX que viajara a España como turista para luego permanecer en este país de forma ilegal, proporcionándole a esos efectos un empleo en su negocio (...) y pagándole el billete de avión. Habiendo aceptado la señora XXX la propuesta, voló desde Caracas, vía París, hasta Bilbao, a donde llegó como turista el día 25 de agosto de 2018, siendo recibida por su prima, quien la alojó y proporcionó el empleo*”. Beraz, Fiskalak PKL-ko 766. artikuluan ahalbidez diren erreforma edo/eta apelazio errekurritsoak tarteratu ahal ditu egitateak ezegoakiak direla uste badu.

⁴⁹ Honi dagokionez, NAVARRO MASSIP, JORGE, *op. cit.*, 7-8 or.

⁵⁰ MUERZA ESPARZA, JULIOren hitzetan: “*El procesamiento suele definirse como el acto de inculpación formal a una persona acerca de la comisión de un hecho que reviste caracteres de delito. Se produce a través de un auto dictado por el Juez de Instrucción – o Central de Instrucción- cuando existen indicios racionales de criminalidad y solo existe en el denominado proceso ordinario por delitos graves (art. 384 LECrim). Tradicionalmente la doctrina ha relacionado este instituto con la determinación del sujeto sometido al proceso*”. “A propósito del auto de procesamiento.”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 944. zk., 2018.

⁵¹ Aurretik jaso dugun moduan, ARMENGOT VILAPLANA, ALICIAren hitzetan: “*El auto de continuación se presenta como una resolución de clausura de la instrucción y como una auténtica imputación formal, en la medida en que declara expresamente la imputación y fija provisionalmente el objeto del proceso*”. *op. cit.*, 107. or. Era berean, aipatu ahal dugu AGE 1468/2018, 2018ko apirilaren 25ekoa, 2. OJn jasotakoa: “*En definitiva, al igual que en el auto de procesamiento, se está en presencia de un acto de imputación formal*”.

Prozedura laburtuan pertsona bat akusatua izan ahal izateko, aurretik adierazi dugun moduan, ezinbestekoa da instrukzio fasean ikertu moduan deklarazioa epailearen aurrean, fase horretan parte hartzeko aukera emanez⁵². Hortaz, Konstituzio Auzitegiak argi uzten du inor ezin dela akusatua izan instrukzioko epaileak entzun ez badu inputatzen zaizkion egitateen inguruan egiten duen deklarazioa, hau aurretiazko eginbideen bukaera eman baino lehen eginda egoteko beharrarekin⁵³. Prozedura arrunten ematen den prozesatze autoa bezala, prozedura laburtuan ematen den transformazio-autoa, instrukzioko epaileak egiten duen inputazio formaleko egintzak dira. Beraz, prozedura laburtuan transformazio-autoak beteko du prozedura arruntean prozesatzen autoak duen funtzioa⁵⁴. Hau da, transformazio-autoak, aurretik ikertu moduan zitatua izan den eta deklarazioa PKLren 775. artikuluko betez eman duen pertsonaren inputazio formala beteko du. Ondorioz, aurretiazko eginbideetan ikertua izan den pertsona, ikertu moduan deklaratu duenean, transformazio-autoak pertsona horren inputazio formala osatzearen funtzioa izango du.

Hala eta guztiz ere, prozedura laburtuan inputazio formalerako egintza zehatza zein den aztertzen denean, argi geratzen da jurisprudentziaren interpretazioan gora-beherak egon direla. Zentzu honetan, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak hainbat epaitan zitazioaren inguruan mantendu duen ideia kontuan hartu behar dugu⁵⁵: prozedura laburtuan inputatua entzuna izateko egindako zitazioa inputazioa esleitzeko egintza formala da, beraz modu horretan inputazio formala eginez. Inputazio formalaren egintza defentsarako eskubidea aktibatzeke ezinbesteko ukanbearra da, bai eta akusazioa gauzatu ahal izateko⁵⁶. Inputatua, zitazioa jasotzean inputatzen zaionaren berri izango

efectuado por el Juez Instructor exteriorizador de un juicio de probabilidad de naturaleza incriminatoria y delimitador del ámbito objetivo y subjetivo del proceso”.

⁵² Zentzu honetan, ÁBREGO SÁNCHEZ-OSTIZ, IDOIA. RUIZ DE ERENCHUN ARTECHE, EDUARDO, “La fase intermedia en el procedimiento abreviado: las garantías del derecho de defensa en la «imputación sorpresiva» a través de las diligencias complementarias”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 6. zk. 2012, 1-2 or.

⁵³ Kostituzio Auzitegiak epai ezberdinetan islatu du ideia hori: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJ; KAE 135/1989, 1989ko uztailaren 19koa, 3.OJ; KAE 128/1993, 1993ko apirilaren 19koa, 3. OJ.

⁵⁴ Honako ebazpenetan sakontzen da ideia horretan: AGE 94/2010, 2010eko otsailaren 10ekoa, 2. OJ; AGE 156/2007, 2007ko urtarrilaren 25ekoa, 2. OJ; AGE 1468/2018, 2018ko apirilaren 25ekoa, 2. OJ; AGE 703/2003, 2003ko maiatzaren 13koa, 2. OJ; PAE (Bartzelona) 6291/2019, 2019ko uztailaren 5ekoa, 3. OJ; PAE (Madril) 8424/2009, 2009ko maiatzaren 10ekoa, 1. OJ; etab.

⁵⁵ Bide hori honako ebazpenetan jasotzen da: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJ; KAE 135/1989, 1989ko uztailaren 19koa, 3.OJ; KAE 128/1993, 1993ko apirilaren 19koa, 3. OJ. Izan ere, KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJn jasotakoa ikusi ahal dugu: *“En este sentido no hay que olvidar que una de las funciones esenciales de la instrucción es la de determinar la legitimación pasiva en el proceso penal (cfr. arts. 299 y 789.3.º, en cuya virtud constituye objeto de las diligencias previas determinar «las personas que en él hayan participado»), función que en el proceso común se realiza a través del procesamiento y que en el proceso penal abreviado, suprimido el procesamiento, dicha función debe llevarse a cabo mediante la previa imputación judicial, pues, de lo contrario, las partes acusadoras públicas o privadas, serían enteramente dueñas de dirigir la acusación contra cualquier ciudadano, confundiendo el principio acusatorio con el dispositivo, con sustancial merma de las garantías de la defensa permitiéndose, en definitiva, que personas inocentes pudieran verse innecesariamente sometidas a la «penalidad» de la publicidad del juicio oral.”*

⁵⁶ AGE 94/2010, 2010eko otsailaren 10ekoa, 2. OJ. Honakoa jasotzen du: *“la información al sujeto pasivo del procedimiento penal acerca del objeto del mismo, en lo que pueda afectarle, constituye un elemento esencial para el ejercicio del derecho de defensa, tanto durante la instrucción como en el juicio, pero precisamente por ello tiene sus propios momentos y trámites procesales sobre la resolución que acuerda la conclusión de la instrucción y apertura de la fase intermedia. Dichos momentos son: 1º) En fase de instrucción, el traslado judicial de la imputación a la persona afectada, antes o en el momento de recibirle declaración como imputado, instruyéndole de sus derechos y facultándole para intervenir en la instrucción, pudiendo formular las alegaciones que estime oportunas para su defensa y solicitar cuantas diligencias estime pertinentes (art. 118 LECrim .). Con ello se posibilita el ejercicio pleno del derecho de defensa, respecto de los hechos que han sido objeto de imputación judicial durante la instrucción del procedimiento. 2º) En la fase intermedia -ya en calidad de acusado y no de mero imputado- cuando se le da traslado de la acusación (art. 784 LECrim*

du; hau da, dituen legezko bermeen berri ematen zaio, eta bere esku dagoen defentsarako eskubidearen informazioa ematen zaio. Izan ere, zitazioaz gain, deklarazioan bertan ere jakinarazten zaio inputatu izaera eta bere burua defendatzeko dituen eskubideak. Modu horretan, defentsarako eskubidearen erabilera osoa ahalbidetzen zaio inputatuari, eta inputazio formala eginda geratzen da⁵⁷.

Horrenbestez, aztergaia den kasuari dagokionez, Maria Montoyak bere zitazioa jasotzean, ikertu egoera prozesalaren berri izan zuen. Hau da, bertan immigrazio klandestinoaren faboratzearen kontra delitu bat osatu ahal zuten egitateen ikertua zela adierazi zioten. Ondoren, transformazio-autoak inputazio formala eta prozesuaren objektuaren behin-behineko zehaztea ekarri zuen, bertan egitateen auzipetua zela adieraziz. Horren ondorioz, esan genezake Mariak instrukzioan zehar horren inguruan bere burua defendatzeko aukera izan zuela⁵⁸.

Inputazio formala egiterakoan, kriminalitatezko arrazoizko zantzuak egon behar dira pertsona zehatzaren kontra⁵⁹. Beraz, auzipetuaren egoera prozesala esleitzen zaionean, susmo hutsak baino gehiago egon beharko dira, hau da, kriminalitatezko arrazoizko zantzuak, ikerketa eginbideetan oinarrituta egon beharko direnak. Horregatik, Mairari zitazioa egin ziotenean, ikertu gisa deitu zuten bere aurkako zantzuak zeudelako. Eta transformazio-autoaren kasuan, bertan jaso ziren inputazioa oinarritzen zuten egitateak, modu argi batean ikusteko Maria Montoyak zigorgarriak izan ahal ziren egitate batzuk burutu zituela, horien zantzu arrazionala zeudelako. Hau da, prozesua modu oinarritu batean aurrera egiten zuela frogatuta gertatzeko, egitateen kontaktetan jasotakoak kriminalitate zantzu arrazionalak zeudela islatzen zuen. Dena dela, arrazoizko zantzuak egon arren, horrek ez du esan nahi zigor epaitegiak ondoren emango duen epaia kondenazkoa izan behar denik⁶⁰.

Ondorioz, instrukzioko epaileak aurretiazko eginbideen bukaera ebatzen duenean, eta prozedura laburtuan bihurtzen dituenean, inputazioaren objektua izan diren egitateen gainean egiten du. Izan ere, instrukzioaren oinarri izan diren aurretiazko eginbideetatik ondorioztatzen da prozesuaren objektua izan ahalko dena, hortaz auzipetua horien berri izan behar du. Egitate zigorgarri batengatik pertsona zehatz baten inputazioa egiteko asmoa dagoenean, epaileak modu egokian

.), una vez que ha sido formulada ésta por quien debe hacerlo (las partes acusadoras y no el Juez de Instrucción), información que le faculta para ejercitar con plenitud su derecho de defensa cara al juicio oral, formulando su calificación alternativa y planteando los medios de prueba que estime pertinentes (v., por todas, STS de 9 de octubre de 2000)".

⁵⁷ Aztertzen dugun kasuan, jurisprudentziaren ildo horri dagokionez, garrantzitsua da argitzea Mariaren zitazioa eta deklarazioa immigrazio klandestinoaren faboratzearen delituagatik soilik egin zirela, eta bertan ez zela ezer adierazi langileen eskubideen kontrako delituaren inguruan. Are gehiago, transformazio-autoan ez zen bigarren delitu horren inguruko aipamenik jaso ere.

⁵⁸ PICÓ I JUNOY, JOAN, *Las garantías constitucionales del proceso*, J.M. Bosch Editor,artzelona, 2012, 132 or. Autoreak honakoa jasotzen du: *"La citada puesta en conocimiento de una determinada imputación a una persona debe efectuarse lo antes posible al objeto de proteger su derecho a la defensa. Así, cabe destacar la constante doctrina del T.C. en orden a que el Juez instructor, tras efectuar una provisional ponderación de la verosimilitud de la imputación de un hecho punible contra persona determinada, cualquiera que sea la procedencia de ésta, debe comunicárselo al imputado, con ilustración expresa del hecho punible cuya participación se le atribuye para permitir su autodefensa y una efectiva y equilibrada contradicción, pues debe siempre garantizarse el acceso al proceso de toda persona a quien se le atribuya, más o menos fundadamente, un acto punible y que dicho acceso lo sea en consideración de imputado."* Beraz, argi dago hori betetzen ez den kasuetan akusatuak bere burua defendatzeko eskubiderik izan ez duela.

⁵⁹ Kriminalitatezko arrazoizko zantzuak inputazio eratzekoan hau nahiko oinarritua izan behar dela esan nahi dute; hau da, susmo hutsak baino gehiago, zentzuzko zantzuak edo zantzu oinarrituak egon behar dira subjektu pasiboak aurrera eramandako egintza tipo penal bategatik estalita dagoela pentsatzeko. Era honetan aritzen da KAE 67/1997, 1997ko apirilaren 7koa, 20Jn.

⁶⁰ Iritzi honetakoa da ORTEGO PÉREZ, FRANCISCO, "Reflexiones acerca de la imputación y los estatus procesales de «investigado» y «encausado»", *op. cit.*, 204 or.

inputatu beharko du bere defentsarako eskubidea eta kontraesan eskubideaz baliatzeko aukera izateko⁶¹. Inputazio formal hori transformazio-autoaren bidez egingo da, prozesu penalaren subjektu pasiboa ikertu moduan deklaratu ondoren, bertan alderdi subjektiboa eta objektiboa mugatuz, eta alderdi akusatzaileek marko horren barruan jardun beharko dute. Kasu honetan modu egokian egiten zaio inputazio formala Mariari transformazio- autoaren bidez.

3.2. Fiskalaren akusazio-idazkia: ustekabeko akusazioa

3.2.1. Akusazio-idazkiaren mugak

Dakigunez, Ministerio Fiskalak akzio penala gauzatu behar du delitu publikoetan, bere jarduera legezketasunaren alde burutuz eta prozesuaren garapen egokia bermatuz⁶². Kasu honetan, fiskala alderdi akusatzaile bakarra izan zen eta akusazioa burutu zuen Mariaren kontra, aurretik laburtutako egitateei dagokienez. Izan ere, prozedura laburtuan ahozko epaiketa irekitzen da akusazioa burutzen duten alderdien akusazio-idazkietan jasotako eskaera bidez, bertan egitateen kalifikazioa jasoz. Alderdien parte-hartzeari dagokionez, momentu prozesal oso garrantzitsua da, idazki horiek prozeduraren ondorengo garapenaren zenbait elementutan eragin handia izango dutelako⁶³.

Akusazio idazkiak finkatzen ditu auzitegiak epaia ematerakoan kontuan hartu behar dituen egitateak. Beraz, ikuspuntua prozesuaren objektuan jarritz, bi muga jartzen dizkio jurisdikzio-organoari. Alde batetik, auzitegia akusazioaren egitatearen kontaktara mugatuta dago, eta ezin ditu egitate berririk sartu. Beraz, fiskalak bere idazkiaren bidez prozesuaren objektua finkatzen du behin betikoz (delituzko egitate zehatzak eta akusatuak diren pertsona zehatzak), transformazio- autoaren esparrua errespetuz. Kalifikazio-idazkietan egitateak zehaztu ostean, ezin izango dira aldatu; hauen gainean ezarritako kalifikazioak soilik aldatu ahalko dira. Bestetik, akusazio-idazkiak epaiaren kongruentziaren mugak finkatzen ditu; honek esan nahi du auzitegiak soilik egin behar dielako erreferentzia bertan jasotako egitateei, edo behin-betiko ondorioetan esaten denari, baina ezingo du muga hori gurutzatu⁶⁴.

Kalifikazio juridikoari dagokionez, azpimarratu beharko genuke akusazio-idazkiak jasotako kalifikazioa ez dela loteslea⁶⁵. Prozesuan ematen den harreman juridiko prozesalari erreparatuz,

⁶¹ Konstituzio Auzitegiak sententzia ezberdinetan jasotzen du ideia hori: KAE 277/1994, 1994ko urriaren 17koa, 2. OJ eta KAE 149/1997, 1997ko irailaren 29koa, 2. OJ.

⁶² Modu horretan jasotzen du MONTERO AROCA, JUANek, “Las partes acusadoras: el Ministerio Fiscal”, AA.AA., *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019, 77-79 or.

⁶³ Akusazio idazkia aurkezteko PKLren 780.1 artikulua adierazten du hamar egun daudela, beste hamar egunetan luzatu daitekeelarik Ministeritza Fiskalak edo akusazioak galdatzen badute (PKLren 780.2 art.).

⁶⁴ Zentzu honetan, BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “Escrito de acusación”. SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011, 648 or.

⁶⁵ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

akusazio-idazkiek akusatuaren *status*-a markatzen dute. Idazki horretan proposatu egiten dira frogak, eta kautela neurrien inguruan adierazpenak egiten dira⁶⁶.

Kasu honetan, delitua legez kontrako immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitua eman zen, eta akusazioa Maria Montoyaren kontra burutu zen. Izan ere, lan honetan aztertuko dugun arazoa behin-behineko ondorioen atalean jasotako datuen ingurukoa denez, hori da aztertuko duguna:

3.2.2. Behin-behineko ondorioak: ustekabeko akusazioaren jatorria

Akusazio-idazkiaren barnean, behin-behineko ondorioen atala garrantzitsua da prozesuaren objektua mugatzen duelako. Ondorio hauek burutu behar dira legeak xedatutako forma eta ordenean⁶⁷. Kasu honetan, fiskalak ahozko epaiketaren irekiera galdatzen du akusazio idazkian. Adierazi dugun moduan, alderdiak lotuta geratzen dira instrukzioko epaileak aurretiazko eginbideak prozedura laburtuan bihurtzen duen autoan (*transformazio- autoan*) jasotako egitatei⁶⁸. Autoak alderdiak lotzen ditu egitate eta akusatuei dagokienez, baina ez epaileak egindako kalifikazio juridikoari, hau ezberdina izan daitekeelako. Alderdiak kalifikazio juridikoari lotuta ez egon arren - eta kalifikazio desberdina izan ahal duten arren-, hori posiblea izango da soilik akusatua egitate horregatik inputatua egon bada deklarazioa ematen duenean, eta horri dagozkion eginbideak burutzeko eskaera egiteko aukera izan badu. Auzitegi Gorenaren hitzetan, akusazioa osatzerakoan posiblea da transformazio- autoan jasotako egitate guztiak ez barneratzea, baina inoiz ez hauen mugak gaintitzea⁶⁹. Beraz, hau muga bat suposatzen du akusazio printzipioarentzat, akusazioa osatu behar duena ez delako askea zentzu horretan, prozesuaren objektuen mugen barnean osatu behar dituelako bere pretentsioak.

Esan dugunez, akusazio idazkian egitate zigorgarriak jasotzen dira. Horien deskribapena zehatza izan behar da, honek posible egiten duelako akusatua bere kontra osatzen den akusazioaren aurrean defendatu ahal izateko. Gainera, Auzitegi Gorenak jasotzen duen bezala, modu egokian osatu behar da, ondoren auzitegiak horiei buruz ebatzi behar duelako. Akusazio printzipioa babesten da ukanbehar horrekin, prozesuaren garapen egokia bermatzeko akusazioak mugak errespetatuz gero, ondoren epaileak ebazpen egoki bat emango duelako⁷⁰.

Kasu honen akusazio-idazkian transformazio-autoan jasotako egitateen muga gaintitu zuen fiskalak⁷¹. Adierazi egin zuen Mariak Catalinari lan kontratu baten iruzurraren bidez presionatu zuela

⁶⁶ Akusazio idazkian akusazioa osatzen den pertsonen kontrako identifikazioa, erantzukizun zibilaren inguruko adierazpenak, kostuak, eta ahozko epaketan gauzatzeko frogen proposamena jaso behar da. Akusazio idazkiaren egitura PKL-ko 781.1 artikuluan jasotzen da. Lehendabizi, goiburua jasotzen da, zeinetan prozedura identifikatzeko datuak jasotzen dira. Ondoren, behin-behineko ondorioak jasotzen dira, PKL-ko 650. artikulua araututako moduan. Hirugarrenik, erantzukizun zibilaren pretentsioa sartu egiten da. Laugarrenik, frogen proposamena jasotzen da akusazio idazkian. Froga hauen proposamenaren helburua ahozko epaketan praktikatzea da. Kasu honetan Fiskalak eskatu zituenak bere akusazioa frogatzeko helburua zuten.

⁶⁷ PKLren 650. artikuluan arautzen dira.

⁶⁸ Zentzu honetan, IBARRA SÁNCHEZ, JUAN LUIS, *op. cit.*

⁶⁹ AGE 402/2019, 2019ko irailaren 12koa, 13. OJ.

⁷⁰ AGE 338/2020, 2020ko ekainaren 19koa, 1. OJ.

⁷¹ Fiskalaren akusazio idazkian honakoa jasotzen da zehazki: “*A XXXX familiar directo de la acusada XXXX, esta le ofrece trabajo, con la promesa de ayudarla a regularizar su situación administrativa, para que viniera a trabajar desde su país de origen Venezuela, a España, abonándole los gastos del viaje. Ella debe entrar como turista para luego permanecer en el país trabajando de forma irregular. Una vez en el país, no obtuvo*

Espainiara etortzera⁷². Hau da, Mariak bere negozioan etekina lortzeko helburuarekin konbentzitu zuela Catalina bidaia egiteko. Beraz, akusazioak jasotako egitateek bi delitu osatzen zituztela adierazi zuen: a) KP-eko 313. artikuluko langileen eskubideen kontrako delitua⁷³; eta b) immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitua, KP-eko 318 bis 1. artikuluan aurreikusia⁷⁴. Eta Maria Montoya bi delitu horien egile gisa akusatu zuen⁷⁵.

Akusazioak eskatzen duen zigorrari dagokionez, hau zehatza izan behar da, kalifikazio juridikoarekin lotura duena, kalifikazioak finkatutako mugen artekoa⁷⁶. Kasu honetan, honako zigorrak eskatu ziren: a) langileen eskubideen kontrako delituagatik (KP 313. art), 4 urteko espetxe-zigorra; eta b) immigrazio klandestinoaren faboratzearen delituagatik (KP-eko 318 bis 1. artikulua), 9 hilabeteko espetxe- zigorra.

3.2.3. *Transformazio-autoan eta akusazio-idazkietan jasotako egitateen arteko desberdintasuna*

Ezinbestekoa da aipatzea aztertutako kasuan emandako transformazio-autoan jasotzen denaren eta fiskalak akusazio-idazkian jasotzen duenaren arteko desberdintasuna egitatei dagokienez. Autoan, egitateak adieraztean, ez da ulertarazten Maria Montoyak bere lehengusinari iruzur egin ziola bere soldata gabe jatetxean lan egiteko. Bertatik ondorioztatzen dena da Mariak Catalina lagundu zuela legez kontrako modu batean Bilbon geratzera, hegazkina ordainduz, turista gisa sartzeko esanez, bere etxean ostatua emanez eta bere jatetxean lana emanez. Aldiz, akusazioak adierazi zuena da Mariaren helburua Catalina berarentzat lan egitea zela, bere agindupean, legez kontrako moduan, eta soldata bat jaso gabe. Helburu hori lortzeko Mariak Catalinari eskaini zion hegazkinaren txartela ordaintzea, ostatua, lanpostu bat bere jatetxean soldata baten truke, eta bere egoera administratiboa legezkontzeko laguntza. Baina eskainitakoa iruzurra zen, helburua bere lehengusinaz etekina lortzea zelako.

lo que su prima le prometió, la obligó a trabajar, sin sueldo, sin seguro y sin regularización administrativa, señalando que lo debía hacer como pago por haberla traído, bajo la falsa promesa de un contrato de trabajo.”.

⁷² Hau bereziki garrantzitsua da, izan ere, lan honen muina horretan oinarritzen dugulako. Fiskalak bere akusazioa osatzerakoan aurretik jaso dugun Catalinaren deklarazioaren zehaztapenean oinarritu zuelako: Maria Catalina lan kontratu baten promesaren iruzurraren biden Bilbora etortzera bultzatu zuela. Transformazio-autoak ez zuen hori jasotzen eta ezin da bertatik ideia hori ondorioztatu, hortaz, auto horrek mugatutako esparrua gainditu zuen fiskalak.

⁷³ ZK 313. artikulua: *“El que determinar o favoreciere la emigración de alguna persona a otro país simulando contrato o colocación, o usando de otro engaño semejante, será castigado con la pena prevista en el artículo anterior”.*

⁷⁴ ZK 318 bis 1. artikulua: *“El que intencionadamente ayude a una persona que no sea nacional de un Estado miembro de la Unión Europea a entrar en territorio español o a transitar a través del mismo de un modo que vulnere la legislación sobre entrada o tránsito de extranjeros, será castigado con una pena de multa de tres a doce meses o prisión de tres meses a un año. Los hechos no serán punibles cuando el objetivo perseguido por el autor fuere únicamente prestar ayuda humanitaria a la persona de que se trate. Si los hechos se hubieran cometido con ánimo de lucro se impondrá la pena en su mitad superior.”*

⁷⁵ Akusazio idazkian jasotako behin-behineko ondorioak behin-betiko ondorio gisa mantendu zituen ondoren.

⁷⁶ Honen harira, ikus. Auzitegi Goreneko Bigarren Salaren osoko bilkura ez-jurisdikzionalaren erabakia, 2006ko abenduaren 20koa. Bertan jasotzen da epaile edo Auzitegiak ezin duela zigortu akusazioak proposatutako zigor larriena baino goragoko zigor batekin.

Hori dela eta, transformazio-autoan soilik sartzen da KPren 318. artikulugatik inputazioa, eta fiskalak akusazioa osatzean, horri KPren 313. artikulua delitua gehitzen dio⁷⁷. Honi dagokionez, kontuan izan behar da, Maria Montoyak aurretiazko eginbideen fasean ikertu gisa deklaratu zuenean, ez zitzaioa jakinarazi bigarren delituzko egitate hori leporatzen zitzaioa eta ez zuela deklaratu egitate horrengatik. Hau da, ez zioten azaldu langileen eskubideen kontrako delitua osatu ahal zuen egitate batengatik ikertua izaten ari zela.

Hortaz, hemendik ondorioztatu daiteke fiskalak ustekabeko akusazio bat egin zuela. Akusazioa osatzerakoan delitu berri bat gehitu zuen, ezin zena ondorioztatu aurretiazko eginbideetan Mariak ikertu gisa deklaratu zuen egitateengatik, ezta transformazio-autoaren egitateen esparrutik ere. Hau da, beraz, aztertuko dugun arazoa.

3.2.4. Fiskalak burututako ustekabeko akusazioa: analisia egitateen ikuspuntutik

Lantzen gauden kasuan, fiskalak, behin-behineko ondorioen kalifikazio idazkian ustekabeko akusazio bat burutu zuen.

Prozesu penalean, inputatua prozesuaren subjektu pasibo bilakatzen da, eta ondorioz, defentsarako eskubidea egikaritu ahal du, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan arautzen dena⁷⁸. Alde horretatik, egitate zigorgarriaren egozpen oinarritua dagoen momentutik aurrera, ikertuak defentsarako oinarritzko eskubidea baliatzeko aukera du, transformazio-autoaren inputazio formalera eta kriminalitatezko arrazoizko zantzuen adierazpena itzaroteko beharrik gabe.

Konstituzio Auzitegiak adierazten du inputatuak prozesu penalean berme guztiak izan behar dituela, bere eskubideak ahalik eta hoberen zainduz⁷⁹. Hori dela eta, debekatzen ditu ustekabeko akusazioak, hauek akusatua berme konstituzionalak urratu egiten dituztelako. Izan ere, ustekabeko akusazioa modu ezberdinetan eman daiteke. Alde batetik, ustekabeko akusazio bat izango litzateke aurretik inputatu bati ikertu gisa deklarazioa eskatu ez zaionean egitate batzuen inguruan, eta ondoren horiengatik akusazioa gauzatzea. Beste aukera bat izango litzateke pertsona bat akusatzea kalifikazio-idazkian, aurretik ikertuaren egoera prozesala izan ez duena.

Kasura ekarriz, hori da Fiskalak Maria Montoyari egin ziona. Prozesuan zehar, Maria ez zen deitua izan langileen eskubideen kontrako delitu baten inguruko egitateen ikertu gisa deklaratzera. Egitate horiek ez ziren transformazio-autoaren mugetan sartzen. Baina, egoera horretan, fiskalak bere akusazioa osatzean, delitu horrekin lotura zuten egitateak eta kalifikazioa barneratu zituen, Mariaren

⁷⁷ Bigarren delitu honen akusazioa egiterakoan, kasua larritu egiten da delitu horrek duen zigorra altuagoa delako; izan ere, delitu honentzat bi eta bost urte bitarteko kartzela zigorra aurreikusten du legegileak.

⁷⁸ Zentzu honetan, CALAZA LÓPEZ, SONIA, “Proyecciones del derecho de defensa tras la reforma de la LECrim: Son todas las que están pero no están todas las que son.”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 924. zk., 2016.

⁷⁹ KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 5.OJ. Hona hemen bertan jasotzen denaren zati literal bat: “*Según constante y reiterada doctrina de este Tribunal, el artículo 24 de la Constitución, en cuanto reconoce los derechos a la tutela judicial efectiva con interdicción de la indefensión, a un proceso con todas las garantías y a la defensa, ha consagrado, entre otros, los citados principios de contradicción e igualdad, garantizando el libre acceso de las partes al proceso en defensa de derechos e intereses legítimos. Ello impone la necesidad, en primer término, de que se garantice el acceso al proceso de toda persona a quien se le atribuya, más o menos, fundadamente un acto punible y que dicho acceso lo sea en condición de imputada, para garantizar la plena efectividad del derecho a la defensa y evitar que puedan producirse contra ella, aun en la fase de instrucción judicial, situaciones de indefensión*”.

defentsarako eskubidea urratuz⁸⁰. Ustekabeko akusazio honek bi arazo ditu oinarrian: fiskalak transformazio-autoan jasota ez zeuden egitate batzuetatik akusazioa osatu zuen⁸¹, eta fiskalaren akusazioak Mariaren defentsarako eskubidea urratzen zuen aurretik Mariak ez zuelako egitate horien inguruan inputatu gisa deklaratu.

3.2.4.1. Konstituzio Auzitegiaren doktrina ustekabeko akusazioen inguruan

Konstituzio Auzitegiak ustekabeko inputazioak debekatu egiten ditu. Bere ebazpenetan argi adierazten du prozesu penalak zenbait arau konstituzional bete behar dituela, hauek errespetatuz, bermatuz eta babestuz. Hortaz, atal honetan Konstituzio Auzitegiaren gai horren inguruko doktrina jasotzen eta argitzen saiatuko gara, aztertzen dugun kasuarekin lotuz.

Alde batetik, Konstituzio Auzitegiak adierazten du ezin dela pertsona baten kontrako akusazio bat eratu, aurretik ez bada izan inputatu-ikertuaren izaera. Hori gertatuz gero, praktikan, ustekabeko akusazioa emango litzateke, pertsona horren defentsarako eskubidea urratuz. Hau da, inputazioa modu egokian egin behar da inputatua instrukzio fasean bere defentsarako eskubidea osotasunean baliatzeko aukera izateko. Ez da ahaztu behar instrukzio fasearen oinarriko funtzioetariko bat prozesuaren legitimazio pasiboa zehaztea dela, egitateetan parte hartu duten pertsonak zehaztuz⁸². Aurretik azaldu dugun moduan, prozesu arruntean funtzio hau prozesatze autoak betetzen du, baina laburtuan izapide hori ez dago aurreikusita, eta funtzio hori transformazio-autoari esleitzen zaio. Inputazio horren helburua akusazio publiko eta partikularrak akusazio guztiz aske bat ez osatzea da, akusazio printzipioak prozesu penala modu egokian garatzeko dituen mugak urratuz. Gainera, hori betetzen ez bada, defentsarako bermeak urratuko lirateke⁸³.

Maria Montoyaren inputazio formala transformazio-autoaren bidez egin zen eta zentzu horretan ez zen inolako eskubiderik urratu. Izan ere, kasuan sortutako arazoa fiskalak eragin zuen,

⁸⁰ Fiskalaren akusazio- idazkian honakoa jasotzen da zehazki: *“A XXXX familiar directo de la acusada XXXX, esta le ofrece trabajo, con la promesa de ayudarla a regularizar su situación administrativa, para que viniera a trabajar desde su país de origen Venezuela, a España, abonándole los gastos del viaje. Ella debe entrar como turista para luego permanecer en el país trabajando de forma irregular. Una vez en el país, no obtuvo lo que su prima le prometió, la obligó a trabajar, sin sueldo, sin seguro y sin regularización administrativa, señalando que lo debía hacer como pago por haberla traído, bajo la falsa promesa de un contrato de trabajo.”*

⁸¹ Transformazio-autoan honakoa jasotzen da zehazki: *“Durante el mes de julio del 2018 XXX dada la precaria situación en que se encontraba en su país, ofreció a XXX que viajara a España como turista para luego permanecer en este país de forma ilegal, proporcionándole a esos efectos un empleo en su negocio (...) y pagándole el billete de avión. Habiendo aceptado la señora XXX la propuesta, voló desde Caracas, vía París, hasta Bilbao, a donde llegó como turista el día 25 de agosto de 2018, siendo recibida por su prima, quien la alojó y proporcionó el empleo”*.

⁸² KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4.OJ. Era berean, KAA 241/2001, 2001eko uztailearen 26koa, 3. OJn adierazitakoa interesgarria da: *“Es doctrina de este Tribunal Constitucional que la acusación en el procedimiento abreviado venga precedida de una previa imputación para evitar así acusaciones sorpresivas sin que se le haya dado oportunidad al así acusado de intervenir en la fase instructora del proceso penal, por lo que en este procedimiento abreviado en el que no existe un Auto de procesamiento, la imputación no ha de retrasarse más allá de lo estrictamente necesario, ya que de lo contrario se pondría en juego los derechos de defensa del sometido a la jurisdicción penal”*.

⁸³ Konstituzio Auzitegiaren epai ezberdinak ikusi zentzu horretan: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4.OJ; KAE 141/1986, 1986ko azaroaren 12koa, 1.OJ; KAE 278/2000, 2000 azaroaren 27koa, 13. OJ; KAE 87/2001, 2001eko apirilaren 2koa, 3. OJ; KAE 19/2000, 2000ko urtarrilaren 31koa, 5. OJ; etab.

akusazio idazkian transformazio-autoak jasotzen ez zituen egitateak sartzean, Mariaren kontrako ustekabeko akusazio bat eraginez.

Konstituzio Auzitegiak, aurreko ideia mantentzeaz gain, 2001eko auto batean adierazten du inputatua den pertsona, prozesu penala aurrea egin ahala, instrukzioan zehar inputatzen zaizkion egitateak ezagutzen baditu, eta ondoren akusazio idazkian aurretik aipatu ez den delitu baten akusazioa egiten bada, horrek ez duela arau-hausterik ekarriko⁸⁴. Hau da, aurretik adierazi dugun moduan, transformazio autoak jasotako egitateak dira lotesleak direnak, eta ez bertan jasotako kalifikazio juridikoak. Beraz, egitate horietatik ondorioztatu ahal bada tipo penal zehatz bat betetzen dela, horren akusazioa bidezkoa da. Hau da, horrek ez du ustekabeko akusazio bat osatzen.

Aztertzen ari garen kasuarekin lotuz, Maria Montoyak langileen eskubideen kontrako delitu bat osatu ahal zuten egitateen inguruan ikertua izan bazen, deklaratzera jakinarazi zizkieten egitateetatik tipo penal hori ondorioztatu ahal zelako, horrek ez luke bere defentsarako eskubidea urratuko. Hau da, ustekabeko akusazio bat ematen denean akusatua den pertsonaren defentsarako eskubidea kaltetzea da, prozesu penalean zehar akusazio horren aurrean bere burua defendatzeko aukerarik izan ez duelako. Baina, nahiz eta instrukzioan delituzko egitate zehatz baten aipamena ez egin, inputatua deklaratzera jakinarazi dizkieten egitateetatik tipo penala osatzen duen elementuen inguruan defendatzeko aukera izan badu, horrek ez luke ustekabeko akusazio bat ondorioztatuko, ezta defentsarako eskubidea kaltetuko. Izan ere, Mariak ez zituen ikertu gisa KPren 313. artikulua jasotako delituzko egitateen inguruko deklaraziorik egin, fiskalak ustekabeko akusazio bat osatu zuen bere kontra akusazio idazkian.

Konstituzio Auzitegiaren doktrinak adierazten du prozedura laburtuan, akusazioa egin baino lehen, auzipetuak, leporatzen zaizkion egitateak ezagutuko behar dituela, aurretik horiengatik ikertu gisa deklaratu duelako. Kasu horretan, bere defentsarako eskubidea baliatuko du prozesu penalean zehar. Hortaz, Konstituzio Auzitegiak debekutzen du inputazio formala eginda dagoen momentua igaro ostean ustekabeko inputazioak edo akusazioak egitea. Izan ere, ikertu-auzipetuak defentsarako eskubidea bermatuta izan behar du, eta ezin zaio hori kendu ustekabeko inputazio baten ondorioz⁸⁵. Gainera, ez da konstituzionalki onargarria ikertutako pertsonari informazioa ez ematea eta instrukzioa bukatzea egitate zehatz batengatik ikertu gisa deklaratu gabe.

Izan ere, pertsona batek ikertuaren egoera prozesalean egongo da egitate zehatz batzuen inguruan, beraz, egitate hauen aldaketa egonez gero, berriz deklaratzera deitua izan beharko da horren berri izateko. Hau da, entzuna izateak honako hau bermatzen du: ikertuak bere egoera prozesala ezagutzea, inputatzen zaizkion egitateak ezagutzea, horren aurrean dagozkion eskubideak ezagutzea, abokatu izendatzeko eta errugabe deklaratzeko aukera izatea lehenengo momentutik⁸⁶.

⁸⁴ KAA 241/2001, 2001eko uztailaren 26koa, 3. OJ.

⁸⁵ Konstituzio Auzitegiaren epai ezberdinetan agertzen da islatuta ideia hori: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15koa, 4.OJ; KAE 102/1997, 1997ko maiatzaren 20koa, 5. OJ; KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21koa, 2. OJ; KAE 7/2001, 2001eko apirilaren 2koa, 3. OJ; KAE 141/1986, 1986ko azaroaren 12koa, 1.OJ, etab.

⁸⁶ Zentzu honetan Konstituzio Auzitegiak epaiak, bestek beste: KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21koa, 2. OJ; KAE 134/1986, 1986ko urriaren 29koa, 2. OJ; KAE 87/2001, 2001eko apirilaren 2koa, 3. OJ. Izan ere, aipagarria da KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21koa, 2. OJn jasotako ideia: *“Consecuentemente con ello, la imputación no ha de retrasarse más allá de lo estrictamente necesario, pues, estando ligado el nacimiento del derecho de defensa a la existencia de la imputación (art. 118 LECrim), se frustra aquel derecho fundamental cuando el Juez de Instrucción retrasa arbitrariamente su puesta en conocimiento. En este sentido, hemos declarado reiteradamente que, admitida una denuncia e incoado el procedimiento contra una persona por determinado delito, no cabe en modo alguno que el órgano jurisdiccional omita que esa imputación sea conocida por el interesado ni clausurar la instrucción sin haberle ilustrado de sus derechos y sin siquiera*

Beraz, egitate zigorgarrian pertsona zehatz baten parte hartzearen zantzuak dauden momentutik, ikertu gisa deitu eta deklaratu beharko du, eta ez lekuko gisa. Eta inputatzeko momentua ezingo da atzeratu.

Aztergai dugun kasuari erreparatzen badiogu, Mariak hasieratik deklaratu zuen ikertu gisa. Arazoa, beraz, sortu zen fiskalak akusazio-idazkian eratu zuen akusazioan. Instrukzio fasea bukatu baino lehen. Mariari egitate berri horien inguruko inputazioa egin eta horien inguruan deklaratzeko aukera eman baliote, egoera horretan ez litzateke ustekabeko akusaziorik egongo, ezta bere defentsarako eskubidearen urraketarik.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, akusazioaren jatorria aurretiazko eginbideen fasean egiten den inputazioan egon behar da, ustekabeko akusazioak saihesteko. Beraz, korrelazio subjektiboa sortzen da inputazio formalaren eta akusazio egintzaren artean⁸⁷. Hortaz, konstituzionalki onartezina da fiskalak akusatuari aurretiaz inputatu zaizkion egitateen aldaketa bat egitea⁸⁸. Hau da, kasu honetan fiskalak egindakoa debekatu egiten du Konstituzio Auzitegiak. Beraz, akusatuak argi izan behar du hasieratik inputatzen zaizkion egitate zehatzak zeintzuk diren, defentsa egokia eratzeko horien inguruan, eta ondorengo akusazioa egiterakoan, horietan oinarritua egoteko.

3.2.4.2. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritzia ustekabeko akusazioen inguruan

Bukatzeko, interesgarria izango litzateke Giza Eskubideen Europako Auzitegiak - aurrerantzean, GEEA- gai honen inguruan adierazitakoa aztertzea. Horretarako abiapuntua jarri behar dugu Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 6.3 artikuluan. Bertan jasotzen da prozesu batean akusatua den pertsona orok leporatzen zaizkion egitateen inguruan informatua izateko eskubidea duela, ahalik eta epe laburrean, modu ulergarri eta zehatz batean. Horrez gain, akusazioak aurkaratzeko beharrezkoa den defentsa eratzeko epe egokia izan behar du auzipetuak. Beraz, defentsarako eskubidea bermatuta egoteko eta prozesua modu egokian garatu ahal izateko, ezinbestekoa da akusatuari informatzea eta leporatzen zaionaren gaineko defentsa eratzeko aukera izatea⁸⁹.

Bere jurisprudentzian GEEAK argi islatu du honako ideia: ezin da akusazio bat osatu eta horregatik zigortu akusatua den pertsonak ez badu horren aurrean bere burua defendatzeko eta horren

haberle oído en dicha condición de imputado. Y, por tanto, establecida la verosimilitud de la imputación de un hecho punible contra persona determinada, el Juez deberá considerarla imputada para permitir su defensa y una equilibrada contradicción”.

⁸⁷ KAE 19/2000, 2000ko urtarrilaren 31koa, 5. OJ. Honela adierazten da bertan: “*De la amplia doctrina de este Tribunal sobre el derecho constitucional de defensa en el ámbito del procedimiento abreviado como correlativo al de ser informado de la acusación (SSTC 128/1993, de 19 de abril, reiterada en las SSTC 149/1997, de 29 de septiembre, y 134/1998, de 29 de junio, entre las más recientes) se desprende con claridad, en primer lugar, que la exigencia de que la acusación venga precedida por una previa imputación en la fase instructora (o de diligencias previas) pretende evitar que se produzcan acusaciones sorpresivas de ciudadanos en el juicio oral, sin que se les haya otorgado la posibilidad de participación en dicha fase instructora”.*

⁸⁸ Beste batzuen artean, ikusi: KAE 141/1986, 1986ko azaroaren 12koa, 1.OJ; 11/1992, 1992ko urtarrilaren 27koa, 3. OJ; 278/2000, 2000 azaroaren 27koa, 13. OJ; 87/2001, 2001eko apirilaren 2koa, 3. OJ.

⁸⁹ Iritzi honetakoa, PÉREZ VAQUERO, CARLOS, “El principio acusatorio según el Tribunal Europeo de Derechos Humanos”, *Derecho y Cambio Social*, 43. zk, 2016ko otsailaren 1ekoa, 6-8. or.

kontra egiteko aukerarik izan⁹⁰. Defentsarako eskubidea osotasunean bermatu behar zaie prozesu penal batean subjektu pasiboak direnei. Prozesuan inputatuak bere defentsa eratzeko denbora egokia izan behar du, eta horrez gain bere kontrako akusazio guztiak ezagutu behar ditu defentsa eraginkorra osatu ahal izateko. Beraz, akusatuak akusatzen zaizkion egitate guztien inguruko informazioa izan behar du, eta horien gainean defentsa bat eratzeko denbora izan behar du. Prozesu penalaren akusatzaileek ezin dute kalifikazio edo akusazio berri bat eratu hau prozesuaren bermeak betetzen ez baditu, horrek akusatuaren defentsarako eskubidea urratuko lukeelako. Hau da, prozesuan zehar soilik onartzen dira aurretik jasotako egitateetan oinarritu ahal diren akusazio eta kalifikazioak, baina ezin dira egitate berriak barneratu.

Beraz, GEEAk adierazten du prozesu penal batean akusatua den pertsonak bere gain eratzten diren akusazioak ezagutu behar dituela eta horien gain defendatzeko eskubidea behar duela. Horrek ondorioztatzen du ustekabeko akusazioak ez dituela onartzen, ezin direlako prozesuan zehar egitate berrien gaineko akusazioak eratu, horrek akusatua informatzeko eta defentsa bat eratzeko duen eskubidea urratzen duelako.

3.3. Ahozko epaiketa irekitzen duen autoa

3.3.1. Ahozko epaiketa irekitzeko autoa: funtzioa

PKLren 783.1 artikuluan arautzen da Ministerio Fiskalak edo akusazio partikularrak ahozko epaiketaren irekiera eskatzen duenean, instrukzioko epaileak onartuko duela, salbuespenak salbu⁹¹. Ahozko epaiketa irekitzen duen ebazpenak akusazioa burutzen duten alderdiek haien kalifikazio-idazkietan jasotakoa biltzen du. Kasu horretan epaileak prozesuan burutzen diren akusazioekiko berme-funtzioa betetzen du, subjektu pasiboen kontra egindako pretentsioen aurrean. Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraiki, ahozko epaiketaren irekiera epaiketa negatibo bat da, eta horren arabera epaileak berme jurisdikzionalen funtzioak betetzen ditu, ez akusazio funtzioak⁹².

Ahozko epaiketaren irekiera ebazpen oso garrantzitsua da. Prozesu penalaren momentu honetan egiten den jurisdikzio-kontrola aurretik instrukzioko epaileak eman dituen ebazpenekin harremanetan jarri behar da, bertan jasotzen direlako lehendabiziko kriminalitate zantzuak prozesua aurrera jarraitzeko⁹³. Beraz, jurisdikzio kontrol honen helburua akusazio idazkietan jasotako

⁹⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako zenbait sententzietan jasotzen da ideia hori: GEEA Salvador Torres vs Espainia, 1996ko urriaren 24koa, OJ bakarra; GEEA Caso Pelissier eta Sassi vs Frantzia, 1999ko martxoaren 25koa, 1. OJ; GEEA Weber vs Suitza, 1990eko maiatzaren 22koa, 1. OJ; GEEA Bendenoun vs Frantzia, 1994ko otsailaren 24koa, 1. OJ; GEEA Campbell eta Fell vs Erresuma Batua, 1984ko ekainaren 28koa, 2. OJ; GEEA Demicoli vs Malta, 1991ko abuztuaren 27koa, 2. OJ; GEEA Engel eta beste batzuk vs Holanda, 1976ko ekainaren 8koa, 6. artikulua urrapenari buruzko OJ.

⁹¹ PKLren 783.1 artikuluan hau jasotzen da: “*Solicitada la apertura del juicio oral por el Ministerio Fiscal o la acusación particular, el Juez de Instrucción la acordará, salvo que estimare que concurre el supuesto del número 2 del artículo 637 o que no existen indicios racionales de criminalidad contra el acusado, en cuyo caso acordará el sobreseimiento que corresponda conforme a los artículos 637 y 641*”.

⁹² KAE 186/1990, 1990eko azaroaren 15koa, 4.OJk honakoa jasotzen du literalki: “*Pero este juicio acerca de la improcedencia de abrir el juicio oral -en definitiva de la improcedencia de la acusación formulada-, de existir, es un juicio negativo en virtud del cual el Juez cumple funciones de garantía jurisdiccional, no de acusación.*”.

⁹³ Zentzu honetan, MUÑOZ CUESTA, FRANCISCO JAVIER, “El auto de apertura del juicio oral: la calificación de los hechos que hace el juez de instrucción no vincula al órgano sentenciador. Comentario a la

egitateak dira, eta ez kalifikazio juridikoa, hain zuzen ere transformazio-autoan epaileak jasotako kalifikazio juridikoa ez delako loteslea. Hau da, egitateen balorazio juridikoa ahozko epaiketaren ahozko ikustaldian egin behar da⁹⁴. Ahozko epaiketa irekitzen duen autoan burutzen den kalifikazioa, aldiz, behin-behinekoa da. Izan ere, ebazpen horrek, alderdi akusatzaileen idazkian oinarritu egiten denez, prozesuaren objektua jasotzen du, akusazio idazkietan jasotako egitate zigorgarrien gaineko kontrola burutz⁹⁵.

Autoak prozesuaren garapenean inflexio-puntu bat markatzen du, prozesuaren objektua finkatuz eta epaiketarako eskuduna den organoa finkatuz. Beraz, autoak ondorio zuzenak ditu prozesuan. Instrukzioko epaitegiak prozesuan zuen eskumena galdu egiten du, ahozko epaiketa eskuduna den organoaren alde. Gainera, autoak mugatzen du prozesuaren objektua, aurretik akusatzaileek kalifikazio-idazkietan mugatutako egitateen arabera, eta, momentu horretatik aurrera, ezin dira hori handitzeko edo murrizteko eztabaidagaiak aurkeztu⁹⁶.

Autoaren egitateetan jasotzen da fiskalaren akusazio-idazkiak jasotzen duena. Horri jarraiki, kasuaren autoaren zuzenbide arrazoibideetan adierazten da PKLren 783. artikulua xedatzen duena kontuan izanda, fiskaltzak ahozko epaiketaren irekiera eskatuz gero, epaileak honela erabaki behar duela, salbu eta legeak aurreikusten dituen artxibatze kausa zehatzak ematen badira. Kasu honetan zio horiek ematen ez direnez, xedapenezko atalean epaitegiak agindu zuen ahozko epaiketaren irekiera⁹⁷, akusazioa Maria Montoyaren kontra eginez immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitu batengatik (KP-ren 318 bis 1. artikulua). Hau ebazteko organo eskuduna Bilboko Zigor Auzitegia izan zen. Autoaren xedapenezko atalean ez zitzaion erreferentziarik egin fiskalak egindako ustekabeko akusazioari⁹⁸.

3.3.2. Ustekabeko akusazioaren aipamen eza

Ahozko epaiketa irekitzeko autoari dagokionez, Auzitegi Gorenak argi utzi du, behin akusazioa eginda, akusazio idazkian jasotzen diren egitateak transformazio- autotik atera behar direla⁹⁹. Hau da, egitate edo pertsona gutxiago sar daitezke akusazio-idazkietan, baina inoiz ez gehiago. Beraz, epaileak auto ematerakoan, horren aurrekarietan jaso zuen fiskalaren idazkia, baina xedapenezko atalean ez zion erreferentziarik egin ustekabeko akusazioari, prozesua aurrera jarraituz

STS de 21 enero 2003”, *Repertorio de Jurisprudencia Aranzadi*, 4. zk., 2003. Honako idea azaltzen da bertan: “*Juez de instrucción valora la verosimilitud e intensidad de la acusación formulada e impide que se produzcan acusaciones caprichosas sin los más elementales fundamentos, evitándose acusaciones maliciosas*”.

⁹⁴ Memento, *Procesal Penal*, Francis Lefebvre, Madril, 2016, 381. or.

⁹⁵ Iritzi honetakoa da BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “La apertura del juicio oral”. SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011, 755-828 or.

⁹⁶ AGE 5/2003, 2003ko urtarrilaren 1ekoa, 2. OJ.

⁹⁷ Aztartzen dugun kasuan, ahozko epaiketa irekitzen duen autoak honakoa jasotzen du literalki: “*Se acuerda en la presente causa la apertura del juicio oral y se tiene por formulada la acusación contra XXXX por un delito de favorecimiento de la inmigración ilegal previsto en el artículo 318 bis 1 del Código Penal*”.

⁹⁸ Aipagarria da PKL-ko 783.3 artikulua adierazten duela ahozko epaiketa irekitzen duen autoaren kontra ez dagoela errekursorik, salbu eta akusatuaren egoera pertsonalari dagokion atalean. Izan ere, honi erreferentzia egingo diogu gero.

⁹⁹ Auzitegi Gorenak ideia hori finkatzen du bere jurisprudentzian. Besteak beste: AGE 79/2012, 2012ko otsailaren 9koa, 3. OJ. eta AGE 179/2007, 2007ko martxoaren 7koa, 4. OJ.

soilik immigrazio klandestinoaren kontrako delituagatik eta horrekin harremana zuten egitateengatik¹⁰⁰.

Auzitegiak, ahozko epaiketa ireki baino lehen, bere berme funtzioa betetzen badu, akusazioan mugak gainditu badira, hori konpontzeko aukera izan beharko luke. Auto horrek akusazioaren arrazionaltasuna eta ahozko epaiketa ospatzeko egokitasunaren inguruko ebaluazio bat egin beharko luke, bertan mugatuz frogatutako egitateak eta hauen tipikotasuna aztertuz¹⁰¹. Baina, normalean, ahozko epaiketa irekitzen duen autoa akusazioa formulatu dela adierazten du, ahozko epaiketa ireki behar den ala ez aztertu gabe, bere berme funtzioetatik aldenduz, eta hori da, gure aburuz, aztertzen dugun kasuan gertatu zena. Hau da, epaileak prozesuaren momentu horretan ahozko epaiketa irekitzea modu egokian motibatuta dagoen ala ez aztertu beharko luke, berme juridikzional moduan, ez akusazio moduan¹⁰². Baina kasu honetan, soilik alde batera utzi zuen ustekabeko akusazio hori, horren inguruko adierazpen zehatzik egin gabe, prozesuaren jarraipena akusazio hori gabe aginduz.

3.4. Defentsa-idazkia

Defentsa-idazkia PKLren 784. artikuluan arautzen da. Prozesu penalean defentsa egikaritzeko momentu garrantzitsuenetariko bat da. Praktikan, defentsa-idazkia akusazioak jasotako egitateen ezeztapenean oinarritzen da. Printzipioz, defentsak ez du ezer frogatu behar, akusatuak errugabetasun presuntzioaren babesa duelako. Akusazioa burutzen duten alderdiak dira frogaren zama dutenak; hortaz, printzipio horretatik ondorioztatzen da akusazioak esandakoa ezeztatzeak aukera eman behar zaiola akusatuaren defentsari¹⁰³. Beraz, prozesu penal bakoitzean egiten den defentsa idazkia ezberdina izango da, alderdi akusatzaileak bere kalifikazio-idazkian jasotakoari aurre egin behar diolako defentsak.

Aurretik jaso dugun moduan, Konstituzio Auzitegiaren doktrina adierazten du transformazio- autoaren helarazpena akusazioentzat bideratuta dagoela, hauek akusazioa eratu ahal izateko eta ahozko epaiketaren irekiera eskatu ahal izateko. Beraz, akusatzaileek akusazio-idazkien bidez akusazioa osatu ostean, ematen da hurrengo autoa¹⁰⁴. Ahozko epaiketa irekitzen duen autoaren bidalketa egiten denetik, hamar eguneko epean aurkeztu behar da idazkia. Idazki hauen egiturari dagokionez, PKLren 652. artikuluan araututakoa kontuan hartzen da, akusazio-idazkiaren forma

¹⁰⁰ Aztertzen dugun kasuan, Ahozko Epaiketa irekitzen duen Autoak honakoa jasotzen du literalki: “*Se acuerda en la presente causa la apertura del juicio oral y se tiene por formulada la acusación contra XXXX por un delito de favorecimiento de la inmigración ilegal previsto en el artículo 318 bis 1 del Código Penal*”.

¹⁰¹ Auzitegi Gorenak epai ezberdinetan jasotzen du ideia hori: AGE 326/2013, 2013ko apirilaren 1ekoa, 2. OJ; AGE 94/2010, 2010eko otsailaren 10eko, 2. OJ.

¹⁰² Aurretik jasota dagoen moduan, KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJ-koan ideia hori modu argi batean islatzen du.

¹⁰³ OTAMENDI ZOZAYA, FERMÍN, *Las últimas reformas de la ley de enjuiciamiento criminal. Una visión práctica tras un año de vigencia*, Dykinson, Madril, 2017, 67-68 or.

¹⁰⁴ IBARRA SÁNCHEZ, JUAN LUISen hitzetan: “*formulen escrito de acusación, solicitando la apertura del juicio oral en la forma prescrita por la Ley o bien el sobreseimiento de la causa*”. “Alcance y finalidad del auto de transformación en procedimiento abreviado del Artículo 779.1.4ª LECR, como primer juicio de acusación y de probable responsabilidad penal. El auto núm. 627/2014 de 7 de noviembre, de la audiencia provincial de Palma, caso Nóos”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 37. zk, 2015.

korrelatiboan. Defentsa idazki bat osatzean, akusazio idazki bati erantzuten zaiola kontuan izan behar da.

Defentsa-idazkiaren helburua akusatua den pertsonaren aldeko pretentsioak egitea da, bere defentsarako eskubidea bermatuz eta bere aldeko adierazpen egokiak eginez¹⁰⁵. Izan ere, akusazioak bere pretentsioak egiterakoan, akusazio formal bat egiten du, eta akusatua ahozko epaiketa ireki baino lehen horien aurrean bere burua defendatzeko aukera izan behar du¹⁰⁶.

Behin-behineko ondorioei dagokienez, akusazioak adierazitakoari erantzuteaz gain, prozesuaren defentsaren bidea zehazten du. Defentsaren behin-behineko ondorioak aldatu ahal dira ahozko epaiketan nahi eran. Lehenengo ondorioan egitateak jasotzen dira. Hiru aukera ditu defentsak: a) egitateak ezeztatzea osorik edo modu partzialean; b) egitateak ezeztatzea eta egitateen kontaketa berri bat sartzea; c) egitate berriak sartzea, akusatuaren defentsa indartzen dutenak. Kasu honetan, egitateak ezeztatu zituen defentsak, osorik. Aukera egoki bat da errugabetasun-presuntzioaren ikuspegitik, akusazioa delako egitateak eta egiletasuna frogatzeko betebeharra izango duena. Izan ere, idazkian jaso zen akusazioak egindako egitateen deskribapena ez zuela delitu bat osatzen. Desadostasuna adierazi zuen kalifikazio juridikoarekiko, egitateak delitu bat osatzen ez zutelako. Eta, parte-hartzearen inguruan, Maria egiletzatik kanporatu zuen. Zigorraren inguruan, deliturik ez zegoenez, jaso zen ez zela zigorrik egon behar. Beraz, soilik desadostasuna adierazi zuen defentsa idazkian eta ez zion erreferentziarik egin fiskalak egindako ustekabeko akusazioari¹⁰⁷.

3.5. Epaia

Prozedura laburtuaren prozesu penal hau bukatu egin zen, kasu honetan, kondena epai baten bitartez. Bilboko zigor epaitegiak kasuaren inguruko epaia eman zuen. Frogatutako egitateen atalean jasotzen ziren egitateek transformazio- autotik ateratakoekin egiten zuten bat, eta bertan ez ziren agertzen fiskalak akusazio idazkian gehitu egin zituen egitateak¹⁰⁸.

¹⁰⁵ Horrela jasotzen du OBISPO TRIANA, CONCEPCIÓNek, “Publicado el nuevo Estatuto General de la Abogacía Española. Real Decreto 135/2021, de 2 de marzo, vigente a partir de 1 de julio”, *Aranzadi digital*, 1. zk., 2021. Bertan, defentsa idazkiaren edukia inguruko aipamenak egien dira ere. Idazkiaren goiburuan ez da ezer berezirik jasotzen, prozesua identifikatzeko datuak baizik. Defentsaren erantzunak akusazioak burututako adierazpenei lotuta doaz, beraz, adierazi behar da adostasun dagoen edo ez, eta horretarako justifikazioa. Orokorrean, egitateen ondorioan desadostasuna egonez gero, beste guztietan ere emango da. Gainera, defentsak mantentzen badu ez dela deliturik egon, ez da kalifikazioaren inguruan arituko, ezta egiletasun eta erantzun kriminala alda ditzaketen inguruabarren inguruan. Defentsa idazkian frogaren proposamena ere sartzen da, edota akusazioak proposatutako frogaren inpugnazioa.

¹⁰⁶ Zentzu horretan, ARMENGOT VILAPLANA, ALICIA, *op. cit.*, 89-90 or.

¹⁰⁷ Zentzu honetan, interesgarria da hori nabarmentzea: defentsak prozesu penalaren subjektu pasiboaren defentsarako eskubidea bermatu behar du prozesu osoan zehar. Fiskalak ustekabeko akusazio bat egiterakoan defentsak auzipetuaren defentsarako eskubidea bermatzeko horren inguruan adierazpenen bat egin behar luke. Beraz, kasu honetan deigarria da defentsak ez zuela bere idazkian horren adierazpenik egin. Gainera, behin-behineko ondorio horiek mantendu zituen eta behin-betiko egin zituen ahozko epaiketan.

¹⁰⁸ Sententziak honako egitateak jasotzen ditu zehazki: “*En agosto de 2018, la acusada XXX abonó billete de avión a su prima XXX para que viajara a España desde su país de origen, Venezuela, vía París, entrando como turista para luego permanecer con ayuda de la referida acusada en este país de forma ilegal, en su domicilio, y prestando servicios en su negocio de pastelería*”.

Epaitegiak adierazi zuen egitateetatik eta frogetatik modu argian ondorioztatzen zela Maria Montoyak aurrera eraman zituen egintzak legez kontrakoak zirela, datuak ahozko epaiketan frogatuak izan zirelako. Izan ere, gehitu zuen ezin zela irabazi-asmorik ondorioztatu Mariak aurrera eramandako portaeran, hau da, ez zuela portaera aurrera eramaten lan kontratu baten promesaren oinarrian, lehengusinak direlako eta berak soilik laguntza eskaini ziolako. Beraz, Catalinaren lanagatik aberasteko helburua ez da betetzen, eta ez dago frogatuta. Honen aurrean, epaitegiak ebazpen hau eman zuen: Maria Montoya KP-eko 318 bis 1. artikuluko egilea, bost hilabeteetako isunarekin, 12€-ko eguneroko kuotarekin.

Epaian, soilik agertzen zen fiskalak egindako ustekabeko akusazioaren aipamena aurrekari prozesalen atalean. Ondoren, oinarri juridikoetan, ez zen ustekabeko akusazioaren tipo penalaren adierazpenik egiten. Izan ere, epaileak, inplizituki, akusazio hori deuseztatu zuen adierazi zuenean Catalina Montoya Bilbora joateko Mariak soilik laguntza eman ziola, ez zegoela irabazi-asmorik ezta lan kontratuaren iruzurrik. Beraz, epaileak nolabait akusazio horren inguruko zalantzak argitzen ditu esaterakoan egitate horiek frogatuta ez zeudela.

Epailea, akusazio-printzipioaren atalean jasota dagoen moduan, akusazioek egindako pretentsioei lotuta dago. Baina, ezin da ahaztu akusazioa osatzen duten alderdiak, transformazio-autoak jasotako prozesuaren objektuari lotuta geratzen direla, alderdi objektibo zein subjektiboan. Beraz, epaileak ebazpen bat ematerakoan, transformazio- autoan jasota ez dauden egitate batzuen inguruko zigorra ezartzen badu, hau deuseza izango litzateke¹⁰⁹. Hau da, kasura ekarriz, epaileak fiskalak akusazio idazkian egindako ustekabeko akusazio horretan oinarrituz Maria Montoya zigortuko balu, hori deuseza izango litzateke. Gainera, supostua osotasunean aztertuz, epaileak prozesu penalaren garapen egokia kaltetuko luke. Alde batetik, Maria Montoya ez zen ikertua izan ustekabeko akusazioa oinarritzen zuten egitateengatik, eta ez zuen horien inguruan deklaratu, hortaz horiengatik zigortzean, zuzeneko modu batean urratu egingo lioke defentsarako eskubidea. Behin bere eskubidea urratuta, epaileak egitate horien gaineko epai kondenatzailea emango balu, modu argi batean urratuko luke Maria Montoyak prozesuan izan beharko lukeen berme konstituzionala.

Akusazio-printzipioari dagokionez, hau errespetatuz gero, epailea lotuta geratzen da akusazioa osatzen duten alderdien pretentsioei. Hau da, horien gainean ebatzi behar du, mugak gainditu gabe. Kasu honetan, zigor epaitegiak eman zuen ebazpena akusazioak egindako pretentsioetan oinarritu zuen, ez zuen muga hori gainditzen. Gainera, aurretik jaso dugun moduan, ulertu daiteke epaileak adierazi zuenean Maria Montoyaren portaeran ez zela lan kontratu baten simulazioan ematen, horrekin nolabait ustekabeko akusazioaren pretentsioa deuseztatu egiten zuela.

Ondorioz, epaia kasuaren arazoarekin lotuz, honakoa pentsa daiteke: epaileak ez zuen modu nabarmen batean aztertu fiskalaren ustekabeko akusazio, beraz ez zuen argudiatu horren inguruan, eta prozesuan akusazio hori osatuta egongo ez balitz bezala jardun zuen. Modu horretan akusatuaren defentsarako eskubidea bermatuta geratu zela esan liteke, ez zelako epaitua izan ustekabeko akusazio batengatik, eta ezarritako zigorra arau prozesalak betetzen dituen prozedura penal baten bermeak errespetatzen dituen delako.

¹⁰⁹ AGE 402/2019, 2019ko irailaren 12koa, 13. OJ.

4. AKUSAZIO PRINTZPIOA USTEKABEKO AKUSAZIOEN MUGA GISA

Akusazio printzipioa ez dago modu espresu batean jasota Nazioarteko Hitzarmentan eta Konstituzioan. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren doktrina errepikatua kontuan izanda, prozesu penalaren bermeen parte da, hau da, Espainiar Konstituzioak jasotako 24. artikuluko bermeen parte da¹¹⁰. Printzipio hau oso garrantzitsua da prozesuaren objektuari, akusazioa osatzen duen alderdiei eta epailearen funtzioen banaketari dagokienez. Espainiako sistema prozesalean, ordenamendu juridikoaren sistema prozesala sistema akusatzaile mistoaren esparruan kokatzen da¹¹¹.

Akusazio printzipioak hiru oinarri nagusi ditu: a) epailea ez den organo bategatik akusazioa burutzea eta mantentzea; b) prozesua bi faseetan banatzea, egitate zigorgarriaren ikerketa eta erabakia, ezinezkoa izanik instrukzioan parte hartzen duen organoa erabakian parte hartzea, modu horretan ikerketan ezagutzen diren egitateak ez kaltetzeko erabakia; c) epaile edo auzitegia lotuta geratzen da egitate eta alderdien pretentsioei. Beraz, prozesu penalean garapen egokia bermatzeko hiru oinarri horiek bete behar dira.

Prozesu penalean, prozedura laburtua barne, akusazio-printzipioa guztiz lotuta dago akusazioaz informatzeko oinarrizko eskubidearekin. Horrez gain, epaituko duen epaile edo auzitegia lotetsita geratzen da akusazioaren kalifikazioaren atal faktikoari. Kalifikazio juridikoari dagokionez, lotuta geratzen dira akusazioaren objektua den tipoa eta zigorra den tipoa homogeenak izan behar direlako, hau da, ondasun juridiko berdina babestu behar dute, eta ezin da zigortu akusazioaren objektu den delitu larriago batengatik¹¹².

Printzipio honen jadanekotasuna alderdiak prozesu penalean duten parte hartzea markatzen du, akusazioa burutzen duten alderdien parte hartzea bereziki garrantzitsua bilakatuz. Akusazioa osatzen dutenak dira elementu faktikoak prozesura ekartzeko karga dutenak, hauetan oinarritu egingo delako, kasuaren arabera, sententzia kondenatzailea¹¹³.

Kasu honetan, oinarri horri dagokionez, akusazio-printzipioa errespetatu egiten da. Hau da, akusazioa ebazpena emango duen organoa ez den alderdi batek gauzatu zuen. Fiskalak Maria Montoyaren kontrako akusazioa osatzen du bere behin-behineko kalifikazio idazkian. Beraz, arazoa ez da sortzen horregatik. Aipagarria da ere, prozesuaren hasierako fasea instrukzioko epaitegiak gidatu duela, eta ebazpena zigor epaitegiak ematen duela, beraz, bigarren oinarria ere bete egiten da.

Akusazio-printzipioa beste printzipio batzuekin lotuta dago: epailearen inpartzialtasun printzipioarekin eta kontraesan printzipioarekin. Epaia emango duen epailea inpartziala izan behar

¹¹⁰ Konstituzio Auzitegiko zein Auzitegi Goreneko epaietan ikusi daiteke; esate baterako, KAE 53/1989, 1989ko otsailaren 22koa, 2.OJ eta AGE 167/2020, 2020ko maiatzaren 19koa, 5.OJ.

¹¹¹ Zentzu honetan, GÓMEZ COLOMER, JUAN LUIS, “El juicio oral: estructura y principios informadores”, AAAA, *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019. 326. or.

¹¹² GOYENA HUERTA, JAIMEren hitzetan: “*hemos afirmado que el Juez puede condenar por un delito distinto que el sostenido por la acusación o acusaciones siempre y cuando se trate de un delito homogéneo con el que fue objeto de acusación y siempre y cuando no implique una pena de superior gravedad. Pero, en todo caso, como límite infranqueable en el momento de dictar Sentencia, al Juez le está vedado calificar los hechos de manera que integren un delito penado más gravemente si este agravamiento no fue sostenido en juicio por la acusación, ni imponer una pena mayor que la que corresponda a la pretensión acusatoria fijada en las conclusiones definitivas, dado que se trata de una pretensión de la que no pudo defenderse el acusado*”. “Principio acusatorio”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 10. zk., 2018.

¹¹³ Zentzu honetan, BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “Introducción: proceso penal y sus principios”. SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011. 135-139 orr.

da, eta bere independentzia eta oreka bilatzen da, bidezko modu batean erabakitzeak aurkeztuak izan diren egitateen inguruan¹¹⁴. Aldiz, kontraesan printzipioak alderdien egoera prozesalari egiten die erreferentzia eta honakoa galdatzen du: a) alderdi guztiek ezagutzea egitateen eta zuzenbidearen materia osoa, hauek ebazpen judizialari eragina dutenean; b) alderdi guzti horiek alegazioak egiteko aukera izatea, bata besteekin harremanean¹¹⁵.

Printzipio honek akzio penala aurretiaz gauzatu izatea behartzen du, inputatuak bere defentsa burutzeko eskubidearekin batera, eta hortaz, akusazioa erantzuteko edo arbuiatzeko aukera izateko¹¹⁶. Aurreko puntuarekin lotuz, prozesu penal batean akusazioa modu egokian osatuta egoteko, aurretik akusatua izan dena inputazioaren berri izan behar du eta horren kontra bere burua defendatzeko aukera izan behar du. Hau da, modu formalean inputatuta egon behar da pertsona zehatza, eta inputatutako egitateen inguruan aurretik deklaratu behar du¹¹⁷.

Egitateen kalifikazio juridikoak ez du prozesuaren objektua mugatzen, hortaz, ez du eraginik akusazio-printzipioan. Prozesu penalean akusazioak eskatzen duen zigor zehatza muga bat da epailearentzat eta ezin izango du eskatutakoa baino zigor altuagorik ezarri, bestela deslotze-tesia aurkeztu beharko lukeelako. Izan ere, prozesuaren puntu honetan, auzitegia lotuta dago legezotasun printzipioari. Hortaz, epaileak zigorra ezartzerakoan, akusazioek eskatutako mugak errespetatu behar ditu, bai eta legeak kondenaren objektua den arau-hauste penal horri ezartzen dion zigorraren esparrua ere.

Akusazioa osatzen duten alderdiak instrukzioko epaileak transformazio-autoan jaso dituen egitate zehatzen eta inputatu zehatzetan oinarritu behar dira. Izan ere, ezin izango dute bere akusazioa bideratu autoan jasota ez dauden egitate edo inputatuak izan ez diren pertsonen inguruan. Honek suposatzen du fiskalak arreta berezia jarri behar duela autoaren jakinarazpena egiten diotenean, ez delako izapide soil bat. Fiskalak ikusten badu autoan ez direla jaso egitate zehatzak edo pertsona zehatzak, eta horien inguruan akusazioa osatu nahi badu, autoa errekurritu beharko du. PKLren 766.1 artikulua arabera, erreforma eta apelazio errekurtsioa tarteratzeko aukera dagoela auto horren kontra.

¹¹⁴ Interesgarria da MUÑOZ CUESTA, JAVIERrek honen inguruan esaten duena ekartzea: “*El concepto de Juez imparcial lo hemos de referir, no a la imparcialidad que debe presidir la jurisdicción como tal, es decir como una potestad ajena al objeto del proceso en que la función del Estado de juzgar es una posición de tercero entre aquellos que son partes contrapuestas, sino hemos de concretarla como la cualidad del titular del órgano jurisdiccional que actúa sin otro criterio o voluntad que el de aplicar el Derecho en el caso concreto. Supone desinterés respecto del objeto del proceso y desvinculación personal en relación a cada una de las partes concretamente intervinientes y afirma la STS de 29 de marzo de 2017, que como manifestación funcional, la imparcialidad está dirigida a la adecuación de las decisiones a la previsión normativa y que la actuación del órgano jurisdiccional se lleve a cabo con neutralidad*”. “Derecho a un Juez imparcial: momento para alegar su vulneración y causas que motivan la pérdida de imparcialidad objetiva.”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 7. zk., 2017.

¹¹⁵ Zentzu honetan, MATEOS RODRÍGUEZ-ARIAS, ANTONIO, “Principio de oportunidad, justicia negociada y posición de las partes en el proceso penal.”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 56. zk., 2019.

¹¹⁶ Konstituzio Auzitegiak ideia hori jasotzen du epai ezberdinetan: KAE 54/1985, 1985eko apirilaren 18koa, 6. OJ; KAE 83/1992, 1992ko maiatzaren 28koa, 1. OJ; KAE 34/2009, 2009ko otsailaren 9koa, 3. OJ.

¹¹⁷ Wolters Kluwer, *Principio Acusatorio*. Eskuragarri: [https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAEAMtMSbF1jTAAUNjc0MjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhIQaptWmJOcSoAkwIzIzUAAAA=WKE#:~:text=Es%20aquel%20principio%20inspirador%20del,y%20pruebas%20de%20los%20mismos](https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAEAMtMSbF1jTAAUNjc0MjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhIQaptWmJOcSoAkwIzIzUAAAA=WKE#:~:text=Es%20aquel%20principio%20inspirador%20del,y%20pruebas%20de%20los%20mismos.). [Azken kontsulta: 2021/04/15]

Akusazio-printzipioak ustekabeko akusazioak ekiditeko funtzioa betetzen du, prozesuaren garapen egokia bermatzeko. Izan ere, prozesu penalean ezinbestekoa da akusatuari akusatzen zaizkion delituen eta zigortzen zaizkion delituen arteko harremana egotea. Ezin dira kontuan izan prozesuaren hasieran egindako kalifikazioa, momentu horretan ikerketa lanak gauzatzen dituelako organo judizialak, baina bai hartzen dira behin-betiko ondorioen momentuan. Konparazioa egin behar da epaiak jaso duenaren eta akusazioak behin-betiko ondorioetan adierazi duenaren artean¹¹⁸.

Beraz, akusazio printzipioaren azkenengo oinarriari egin behar diogu erreferentzia. Epai emango duen epailea alderdi akusatzaileek egindako akusazio eskaerei lotuta geratzen da. Ebazpena akusazio edo pretentsio horien gainean eman behar du. Horrek suposatzen duena da akusatzaileek modu egoki eta bidezko batean osatu behar dutela akusazioa. Bereziki fiskalak, transformazio-autoak ezartzen dizkion mugak errespetatuz, edo bestela hori errekurrituz. Izan ere, akusazioa osatu behar du auto horren mugen barnean, baina ez du zertan aipatu behar autoak jasotako guztia, soilik mugak errespetatu akusazioaosatzean. Ez baditu muga horiek errespetatzen, bidezkoa ez den akusazio bat osatzen badu eta epaian epaileak bidezkoa ez den pretentsio horren gaineko zigorra ebazten badu, horrek prozesu penalaren funtsezko bermeak urratuko lituzke. Akusatua izan denaren defentsarako eskubidea kaltetuta egongo litzateke zigor horregatik¹¹⁹.

Epailea alderdi akusatzaileak osatutako pretentsioei lotuta geratzen den arren, honekin ez zaio akusazioari funtsezko eskubide baten titular egin nahi, askatasunez jardun ahal izateko. Horrekin bermatu nahi dena epailearen inpartzialtasuna mantentzea da, ahalik eta gradu handiengan, akusazioak adierazitako objektuaren gainean soilik ebazpena emanez¹²⁰. Hortaz, argi dago akusazio-printzipioaren muga bat suposatzen duela transformazio- autoak. Hau da, bertan jasotako mugen barnean eratu egin behar da akusazioa, eta epaileak muga horiek errespetatzen dituen akusazioaren gainean eman behar du ebazpena¹²¹.

Beraz, aztertzen dugun kasuan, fiskalak Mariaren kontra osatutako ustekabeko akusazioa Mariaren defentsarako eskubidea urratzeaz gain, akusazio printzipioan eraginak ditu. Hau da, akusazio hori osatzean urratzen da prozesu penala modu egokian garatzeko aukera, Mariak ez zuelako akusazio horren inguruan hasieratik bere burua defendatzeko aukerarik. Ahozko epaiketa irekitzen zuen autoan akusazio idazkia jasotzen zuen arren, xedapenezko atalean soilik jasotzen zen immigrazio klandestinoaren faboratzearen kontrako delituagatik ireki egiten zela. Horrek ondorioztatzen du ez zuela jaso ustekabeko akusazio horren inguruko daturik xedapenezko atalean.

Izan ere, Epaiak akusazioak osatutako pretentsioen inguruan ebatzi behar duen arren, prozesu penalaren garapen egokia bermatu behar du. Hortaz, ezin du ebatzi bidezkoa izan ez den akusazio baten inguruan, horrek prozesua kaltetuko lukeelako.

¹¹⁸ KAE 34/2009, 2009ko otsailaren 9koa, 3. OJ.

¹¹⁹ AGE 402/2019, 2019ko irailaren 12koa, 13. OJ.

¹²⁰ Zentzu honetan, CORDÓN MORENO, FAUSTINO, *Las garantías constitucionales del proceso penal*, Aranzadi, Zizur Txikia, 1999, 113.or. Honakoa adierazten du: *“el principio acusatorio, además de satisfacer los derechos a la tutela judicial efectiva y al de defensa ante imputaciones conocidas, permite situar al Juez en la posición de imparcialidad desde la que debe ejercer su función de administrar justicia. El artículo 24 de la Constitución no permite que ningún Juez penal juzgue «ex officio», esto es, sin previa acusación formulada por quien tenga legitimación para ello”*.

¹²¹ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

5. USTEKABEKO AKUSAZIOAK DEFENTSARAKO ESKUBIDEAN DUEN ERAGINARI AIPAMEN BEREZIA

Ustekabeko akusazio bat egiten denean, hau konstituzio arau-haustea dakar. Inputazio hori lehen aldiz agertzen bada behin-behineko akusazio idazkietan, hau ustekabekoa izango litzateke. Beraz, akusazioa osatzen denean, hau Espainiar Konstituzioaren 24. artikulua errespetatu behar du, eraginkorra den babes judizialerako eskubidea bermatuz¹²².

5.1. Defentsarako eskubideak prozesu penalaren subjektu pasiboari ematen dizkion bermeak

Kasu honetan sortzen den arazoa aztertuz, ezinbestekoa da defentsarako eskubidea lantzea. Defentsarako eskubidea Espainiar Konstituzioaren 17. eta 24 artikuluan jasotzen den oinarritzko eskubide bat da. Eskubide hau subjektu guztiak babesten ditu prozesu penalaren hasieran, bitartean eta ostean. Baina eskubide hau prozesuan bertan lortzen du bere osotasuna, inputatzen den pertsonari ematen diolako bere kontra burutzen ari den akzio penalaren aurrean babesteko aukera. Auzitegi Gorenak adierazten du ikertu-auzipetu izaera lortzean, defentsarako eskubidea osotasunean egikaritzeko aukera ematen dela¹²³. Izan ere, inputazio hori edozein izan daiteke, ez du inputazio formala izan behar defentsarako eskubidea martxan jartzeko.

Defentsarako eskubideak ordenamendu juridikoan izaera bikoitza du. Alde batetik, inputatua den pertsonaren eskubide subjektiboa da; zentzu honetan, subjektu pasiboak bere kontra osatzen diren akusazioen kontra egiteko eskubidea du. Eta bestetik, berme publiko gisa funtzionatzen du. Horrela, prozesu penala aurrera egiten duen modua egokia dela bermatu egiten da¹²⁴.

Eskubide honen barruan beste eskubide eta berme batzuk daude, eta hauek PKLren 118. artikuluan arautzen dira. Alde batetik, inputatuak abokatu bat izendatuta izan behar du. Leporatzen zaizkion egitateen inguruko informazioa jasotzeko eskubidea du, bai eta ikerketaren objektuan eta inputatutako egitateetan ematen diren aldaketen inguruan ere. Informazio hau eman behar zaio inputatuari modu egokienean, honek duen defentsarako eskubidea modu egokian egikaritu ahal izateko. Egoeraren arabera, ulermena errazteko, itzultzaile edo interpretatzaile bat eska dezake. Eginbideak aztertzeke denbora eman behar zaio, bere deklarazioa baino lehen, bere eskubidea bermatzeko. Horrez gain, informatua izan denean, prozesu penalean parte hartzeko aukera du, bere defentsarako eskubidea baliatuz, legeak arautzen duen moduan¹²⁵.

¹²² AGE 167/2020, 2020ko maiatzaren 19koa, 5.OJ.

¹²³ KAE 121/1995, 1995eko uztailaren 18koa, 4.OJ. Honakoa jasotzen du: “*asumida la condición de imputado surge con plenitud el derecho de defensa*”. Era berean aritzen da SÁNCHEZ GÓMEZ, RAÚL, “El derecho a la asistencia y defensa letrada en el marco del proceso penal”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 8. zk., 2018.

¹²⁴ Zentzu honetan, OTAMENDI ZOZAYA, FERMÍN, *op. cit.*, 67-68 or.

¹²⁵ CALAZA LÓPEZ, SONIAREN hitzetan: “*Sin perjuicio del encomiable fortalecimiento del derecho de defensa, merced a la regulación expresa, en el nuevo artículo 118 de la LECrim., de una especie de estatuto básico, mínimo o elemental – que podrá, por tanto, ser reforzado, nuevamente, al alza, pero nunca minimizado -, del investigado, al que se le habrán de comunicar, con carácter previo a cualquier actuación, la atribución/imputación delictiva, de manera conjunta a la totalidad de derechos que le asisten, conviene apuntar que este listado no es completo. El Legislador parece, pues, haber seleccionado, en la confección del elenco o listado de derechos esenciales, aquellos que tienen una traducción inmediata en la práctica del procedimiento: el derecho de información; a examinar las actuaciones con la debida antelación; a actuar en*

Akusatzaileek akzio penala egikaritzean, ikertuak, auzipetuak edo akusatuak horren aurrean defendatzeko eskubidea du. Beraz, defentsarako eskubidea auzipetua prozesu penalean dituen berme guztietatik ondorioztatu egiten da. Prozesu penalean, zigorra ezartzeko monopolioa duten auzitegiek ezin dute prozesua burutu ezta zigor bat ezarri akusatuak ez badu abokaturik¹²⁶. Beraz, abokatuaren agerpena ematen da prozedura laburtuan pertsona zehatz baten kontra delitu baten inputazioa egiten denean, derrigorrez, interesatuak aurretik abokatu bat izendatu ez badu¹²⁷. Izan ere, abokatu izango da defentsa hori bideratuko duena, akusatuaren defentsarako eskubidea bermatuz, eta prozesu penala modu egokian garatzen dela bermatuz¹²⁸. Gainera, inputatuak bere buruaren kontra ez deklaratzeko eskubidea du, edo egiten zaizkion galdera batzuk ez erantzuteko eskubidea. Ez dago behartuta erruduntasuna onartzera.

Aurretik jasota dagoen moduan, defentsarako eskubidea egikaritzeko momentua inputazioa eginda dagoenean izango da. Eskubide hau inputazioarekin lotuz, inputazioa ezin da beharrezkoa den epea baino gehiago atzeratu, defentsarako eskubidearen jaiotzarekin lotuta dagoelako. Eskubidea kaltetua suertatzen da inputazioa atzeratu egiten den momentutik. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, instrukzioan zehar defentsarako eskubideaz baliatzeko aukera eman behar zaio, eta Instrukzioko epailearen aurrean inputatu gisa deklaratu behar du¹²⁹.

Defentsarako eskubidea egikaritzean, ezinbestekoa da eskubide hori egikaritu behar duen subjektu pasiboak ezagutzea leporatzen zaizkion egitateak. Hau da, akusazio printzipioa eta defentsarako eskubidea modu bateratuan aplikatzerakoan, akusatua bere kontra osatzen diren inputazioak ezagutzeko eskubidea edo betebeharra sortzen da. Betebehar hori ezinbestekoa bihurtzen da defentsarako eskubidea egikaritu ahal izateko¹³⁰. Egitateak modu ulergarri batean jakinarazi behar zaizkio auzipetuari, honek modu egokienean eratu ahal izateko bere defentsa.

Subjektu pasiboari eman behar zaion informazioa osoa izan behar da, hau da, inputatzen zaizkion egitateak eta horien kalifikazio juridikoa jakinarazi behar zaio. Instrukzioko epaileak ikertuari delituzko egitate baten zantzuak dauden momentutik horren jakinarazpena egin behar dio, prozesua modu egokian garatzeko. Izan ere, betebehar hau prozesuaren ekitatea bermatzea

el proceso penal para ejercer el derecho de defensa; a la asistencia letrada; a la interpretación y traducción; los derechos a guardar silencio; a no prestar declaración; a no contestar y a no confesarse culpable, con claro olvido, entre los que pudiéramos denominar derechos en pie de guerra, de los derechos a realizar alegaciones fácticas y jurídicas, a proponer e intervenir en la práctica de la prueba, a la impugnación de las resoluciones desfavorables y a la última palabra.”. op. cit.

¹²⁶ PKL 786.1 artikulua.

¹²⁷ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

¹²⁸ KAE 29/1995, 1995eko otsailaren 6koa, 4. OJ. Honakoa adierazten du: *“El contenido del derecho a defenderse por sí mismo no se extiende a la facultad de prescindir de la preceptiva defensa técnica. El mandato legal de defensa por medio de Abogado encuentra una propia y específica legitimidad, ante todo en beneficio del propio defendido, pero también como garantía de un correcto desenvolvimiento del proceso penal”*.

¹²⁹ Konstituzio Auzitegiaren ebazpen ezberdinetan jasotzen da ideia hori: KAE 128/1993, 1993ko apirilaren 19koa, 3. OJ; KAE 273/1993, 1993ko irailaren 20koa, 2. OJ; KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15koa, 4. OJ; KAE 34/1983, 1983ko maiatzaren 6koa, 3. OJ; KAE 103/1994, 1994ko apirilaren 11koa, 2. OJ.

¹³⁰ GOYENA HUERTA, JAIME, *op. cit.*, 4-5 or. Honela jasotzen du ideia nagusia: *“La aplicación combinada de los principios acusatorios y de defensa da lugar al derecho de todo acusado a conocer de qué se le acusa, o, en palabras del Tribunal Constitucional, la exigencia de que el acusado tenga conocimiento previo de la acusación formulada contra él en términos suficientemente claros para poder defenderse de ella de manera contradictoria (SSTC 12/81 de 10 de abril , 95/95 de 19 de junio , y 302/2000 de 11 de septiembre). Esta exigencia se convierte así en instrumento indispensable para poder ejercer la defensa, pues mal puede defenderse de algo quién no sabe qué hechos en concreto se le imputan”*.

ahalbidetzen du, prozesu penalean bere defentsarako eskubideaz baliatu behar den pertsona hau modu egokian egikaritu ahal izateko¹³¹. Aztertzen dugun kasuan, Mariari modu egoki batean eman zioten leporatzen zitzaizkion egitateen inguruko informazio, eta horien gaineko defentsa eratzeko aukera izan zuen. Izan ere, arazoa beste arrazoi bategatik sortzen da.

Pertsona batek defentsarako eskubidea baliatu behar duenean, honi soilik ezarriko zaizkio legeak araututako mugak. Baina, horiez gain, ikertu-auzipetu-akusatuak defentsarako eskubideak barnean dituen eskubide guztien jabe da eta ezin zaizkio ukatu¹³². Gainera, ikertu-auzipetuaren defentsarako eskubidea babestuz, parte-hartzeko eta kontra egiteko eskubidea bermatzen dira.

Baina, kasura ekarriz, ustekabeko akusazioari dagokionez, hau lotu behar da defentsarako eskubiderekin. Transformazio- autoak zigortuak izan ahal ziren egitateak jaso zituen, eta Maria Montoya hauengatik auzipetu gisa deklaratu zuen. Mariak, deklaraterakoan, immigrazio klandestinoaren delitu baten ikertu moduan egin zuen. Hortaz, instrukzioan zehar beharrezkoak ikusten zituen alegazioak egiteko aukera izan zuen.

Mariaren kontra akusazio berri bat egiterakoan inputazioa osatu eta gero, bere defentsarako eskubidea urratua suertatu zen. Hau da, momentu prozesal horretan egoerari aurre egiteko bideak eskasak dira: defentsa idazkian adieraziz edo ahozko epaiketaren hasierako aurretiazko arazoan txandan alegatuz¹³³.

5.2. Konstituzionalki babesgabezia sortzeko ukanbearra

Konstituzio Auzitegiak adierazi du legeak oinarrizko eskubideak bermatuz eta Konstituzioarekin bat eginez interpretatu behar direla; beraz, defentsarako eskubidea bermatu behar da prozesu osoan zehar¹³⁴. Izan ere, konstituzionalki babesgabezia suposatzen duen egoera bat izango da arau-hauste prozesala dagoenean, interesatuak alegatzeko aukerarik ez duenean eta prozesuan defendatzeko eskubidea ez duenean¹³⁵. Eta kasu honetan hori gertatu zen, printzipioz, uler genezake Mariaren defentsarako eskubidea urratua suertatu zela, ez zuelako hasiera batetik akusazio berri horren inguruko alegaziorik egiteko aukerarik izan.

¹³¹ Iritzi honetakoa PICÓ I JUNOY, JOAN, *op. cit.*, 132 or. Ikus daiteke nola finkatzen duen ideia hori 59. oinoharrean jasotako testu zatian.

¹³² Zentzu honetan, GÓMEZ COLOMER, JUAN LUIS, "La instrucción del proceso: Su estructura esencial", AAAA, *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019. 96-97 eta 149-151 orr.

¹³³ PKLren 786.2 artikulua: "El Juicio oral comenzará con la lectura de los escritos de acusación y de defensa. Seguidamente, a instancia de parte, el Juez o Tribunal abrirá un turno de intervenciones para que puedan las partes exponer lo que estimen oportuno acerca de la competencia del órgano judicial, vulneración de algún derecho fundamental, existencia de artículos de previo pronunciamiento, causas de la suspensión de juicio oral, nulidad de actuaciones, así como sobre el contenido y finalidad de la pruebas propuestas o que se propongan para practicarse en el acto. El Juez o Tribunal resolverá en el mismo acto lo procedente sobre las cuestiones planteadas. Frente a la decisión adoptada no cabrá recurso alguno, sin perjuicio de la pertinente protesta y de que la cuestión pueda ser reproducida, en su caso, en el recurso frente a la sentencia."

¹³⁴ Ideia hori Konstituzio Auzitegiak emandako zenbait sententzietan errepikatzen da: KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15ekoa, 4. OJ; KAE 34/1983, 1983ko maiatzaren 6koa, 3. OJ; KAE 67/1984, 1984ko ekainaren 7koa, 2. OJ.

¹³⁵ Konstituzio Auzitegiaren sententzia ezberdinetan jasota, besteak beste: KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21ekoa, 2. OJ; KAE 121/1995, 1995eko uztailaren 18koa, 4. OJ; KAE 62/1998, 1998ko martxoaren 17koa, 3. eta 4. OJ.

Batzuetan, prozesu penalean transformazio-autoan jasota ez dagoen egitate baten gaineko akusazioa osatzen denean, horrek ez du defentsa-gabezia suposatzen. Hau da, akusatuak aurretik horregatik ikertua izan bada instrukzioan, zitazioan adierazi bazaio eta galdeketa hori jakinarazi bazaio, gerta daiteke akusazio hori auzipetuaren babesgabezia ez ondorioztatzea. Konstituzio Auzitegiak modu argian jasotzen du babesgabezia kontituzionalki garrantzitsua izateko eta defentsarako eskubidea urratzeko arrazoia ez dela ematen soilik prozesuan zehar arau-hauste prozesal bat ematen denean. Adierazi dugun moduan, transformazio- autoak ondoren prozesuaren objektua izango denaren esparrua jasotzen du. Baina, posiblea da ondoren alderdi akusatzaileek akusazio bat eratzea autoan jaso ez den egitate baten oinarrian, akusatuak horren inguruan aurretik ikertu gisa deklaratu badu eta bere burua defendatzeko aukera izan badu. Egoera horrek ez duelako konstituzionalki babesgabezia suposatzen, arazoa transformazio- autoaren formaltasunean egon delako, baina ez akusatuaren eskubideen gainean.

Baina, beste kasu batzuetan, transformazio-autoaren esparrua gainditzen duen akusazio hori errekurritzeko beharra dago, defentsa-gabezia suposatzen duelako. Konstituzio Auzitegiaren arabera, babesgabeziak efektu juridiko eta konstituzionalak izateko, prozesuaren subjektu pasiboaren defentsarako eskubidearen urraketa larri bat egon behar da, eskubide hori guztiz kaltetuz, bere defentsa eratzeko aukera eta denbora egokirik gabe¹³⁶. Beraz, prozedura laburtuaren esparruan, auzitegiak ideia hori indartu egiten du honakoa adieraziz: ezin da instrukzioa bukatu inputatuak ezagutzen ez baditu leporatzen zaizkion egitateak, eta horien gaineko defentsa eratzeko aukera izan ez badu¹³⁷. Gaineratzen du ondorengo egintza prozesalak aurretik finkatutako bidea jarraitu behar dutela, prozesua berme guztiekin eman ahal izateko¹³⁸.

Beraz, ideia horri jarraiki, inputazio berri bat ematen denean, horri aurre egiteko transformazio- autoa errekurritzeko beharra dagoen ala ez aztertu behar da. Honen inguruan bi ildo jurisprudenzial bereizten dira. Izan ere, probintzia auzitegiko zenbait epaitan adierazten da ezinbestekoa dela fiskalak inputazio berri bat egin nahi duenean, akusatuaren defentsarako eskubidea bermatzeko, transformazio- autoa errekurritzea eta instrukzio fasera bueltatzea¹³⁹. Akusazioa berria tarteko fasean eginez gero, auzipetuaren defentsarako eskubidea kaltetuta suertatzen da, eta horrek

¹³⁶ Zentzu honetan, CHOZAS ALONSO, JOSÉ MANUEL, "El derecho a un juicio público con todas las garantías", AAAA, *Los sujetos protagonistas del proceso penal*, Dykinson, Madril, 2015, 340 or.

¹³⁷ Konstituzio Auzitegiak hori jasotzen du epai hauetan: KAE 290/1993, 1993ko urriaren 4koa, 4. OJ; KAE 149/1987, 1987ko irailaren 30ekoa, 3. OJ; KAE 70/1984, 1984ko ekainaren 11koa, 1. OJ; KAE 48/1986, 1986ko apirilaren 23koa, 1. OJ.

¹³⁸ Honakoa jaso egiten dute aurreko oinoharrearain aipatutako ebazpenek, kasu honetan KAE 290/1993, 1993ko urriaren 4koa, 4. OJ-tik aterata: "*Como hemos dicho en la STC 126/1991, la estimación de un recurso de amparo por la existencia de irregularidades procedimentales no resulta simplemente de la apreciación de la eventual vulneración del derecho por la existencia de un defecto procesal más o menos grave, sino que es necesario acreditar la efectiva concurrencia de un estado de indefensión material o real (fundamento jurídico 5º). Para que puede estimarse una indefensión con relevancia constitucional, que sitúa al interesado al margen de toda posibilidad de alegar y defender en el proceso sus derechos, no basta con una vulneración meramente formal sino que es necesario que de esa infracción formal se produzca un efecto material de indefensión, un efectivo y real menoscabo del derecho de defensa (STC 149/1987, fundamento jurídico 3º), con el consiguiente perjuicio real y efectivo para los intereses del afectado (STC 155/1988, fundamento jurídico 4º).*"

¹³⁹ Ideia hori adierazita dago honako epaietan: PAE (Bartzelona) 297/2000, 2000ko urriaren 2koa, 3OJ; PAE (Girona) 239/2002, 2002ko maiatzaren 13koa 2. OJ; PAE (Bartzelona) 26/2009, 2009ko urtarrilaren 9koa, 1. OJ; PAE (Bartzelona) 133/2010, 2010eko martxoaren 2koa, 2. OJ; PAE (Bartzelona) 291/2009, 2009ko uztailearen 7koa, 1. OJ.

babesgabezia sortzen du. Beraz, transformazio- autoak fiskalak akusazioa osatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzen ez baditu, hau errekurritu behar du babesgabezia ez emateko.

Beste ikuspuntua izango litzateke transformazio- autoa ez errekurritzea, baina inputatuaren deklarazioa egitea berme guztiekin¹⁴⁰. Hau da, ideia hau jasotzen duten epaiek adierazten dute inputatua deklarazioa egingo duela legeak adierazitako bermeekin, eta ondoren transformazio- auto berri bat emango dela datu berriak jasoz.

Baina, bi kasuetan argi adierazten da alderdi akusatzaileek ezin izango dutela akusazio berri bat eratu auzipetuaren defentsa-gabezia suposatu ahal duena. Beraz, autoa errekurritu ala ez, akusatuak beti izan behar du inputatzen zaionaren gaineko deklarazioa emateko aukera eta horren aurrean bere burua defendatzeko aukera¹⁴¹.

Aztertzen dugun kasuan, ez zen horren inguruko alegaziorik egin defentsa idazkian. Izan ere, aurretik jasota dagoen moduan, agian defentsak jarrera hori hartu zuen ahozko epaiketa irekitzen duen autoak ustekabeko akusazioaren inguruko adierazpenik egiten ez zuelako. Beraz, prozesua aurrera jarraitzen bazuen Mariaren eskubideak bermatuak izaten ari ziren egitateengatik soilik, defentsak ez zuen salaketarik egin behar.

¹⁴⁰ Ildo hori adierazita dago AGE 702/2003, 2003ko maiatzaren 30ekoa, 3. OJ eta AGE 714/2006, 2006ko ekainaren 29koa, 2. OJ.

¹⁴¹ Zentzu honetan, ÁBREGO SÁNCHEZ-OSTIZ, IDOIA. RUIZ DE ERENCHUN ARTECHE, EDUARDO, *op. cit.*

6. USTEKABEKO AKUSAZIOA EKIDITEKO BIDEAK

Kasu honetan sortzen den arazoari erreparatuz, argi dago prozesu penalaren garapen egokia ez dela bermatu. Alde batetik, fiskalak ustekabeko akusazio hori ekiditekoa aukera zuen transformazio- autoa errekurrituz. Aldiz, defentsak, ustekabeko akusazio horri aurre egiteko bi bide zituen: defentsarako idazkian salatzea edo ahozko epaiaketaren aurretiazko arazoetan salatzea. Beraz, atal honetan aztertuko ditugu sortutako ustekabeko akusazioa alderdiak baliatu beharko litzuketen aukerak.

6.1. Transformazio-autoa errekurritzeko bideak

Transformazio-autoa PKLak 766. artikuluan¹⁴² xedatzen duen errekurtsoen arauketa orokorraren menpe dago. Legeak transformazio-autoa errekurritzeko aukera modu espresuan jasotzen ez duen arren, nahikoa da arauketa orokorrera jotzea¹⁴³. Hau bide egokia izango litzateke fiskalak uste badu autoak jasotako objektua guztiz egokia ez dela. Hortaz, kasura ekarriz, hau litzateke fiskalak bere akusazioa modu egokian osatu ahal izateko zuen irtenbide aproposa.

Transformazio-autoa inpugnatzeko bi errekurtsu tarteratzeko aukera dago. Alde batetik, erreforma errekurtsua, jakinarazpena jaso eta hiru eguneko epean tartera daitekeena instrukzio epailearen aurrean, eta bestetik, apelazio errekurtsua, jakinarazpena jaso eta bost eguneko epean tartera daitekeena; edo subsidiarioki erreforma errekurtsoarekin batera, azkenengo hau ez onartzekotan. Azken hau, probintzia auzitegiaren aurrean. Legeak ahalbidetzen du apelazio errekurtsua tarteratzea aurretik erreforma errekurtsua tarteratu gabe. Hau da, hiru aukerak aurreikusten dira: erreforma errekurtsua tarteratu, eta subsidiarioki apelazio errekurtsua; bi errekurtsuak tarteratzea, banatuta; edo zuzenean erreforma edo apelazioa. Legeak aurreikusten du argumentazio berria sartzeko aukera erreforma errekurtsuaren ebazpena eman ondoren, honen subsidiarioki apelazio errekurtsua tarteratua izan bada. Hortaz, bost eguneko epea ematen da subsidiarioki tarteratua izan den errekurtsuan alegazioak gehitzeko. Biak instrukzio epailearen aurrean aurkezten dira. Errekurtsuan jaso behar dira hori motibatzen duten azalpenak¹⁴⁴.

Izan ere, aipatu behar da autoaren kontrako errekurtsuak tarteratu ahal dituztela akusazioak zein defentsak. Kasu honetan akusazioak aurkeztu beharko luke errekurtsua, akusazioa osatu nahi duen egitate guztiak ez daudelako jasota transformazio-autoan. Defentsari dagokionez, kasu honetan errekurtsua tarteratuz gero, ez luke zerikusirik izango ustekabeko akusazioarekin, beraz ez du zertan errekurtsu hau erabili behar kasuan sortzen den arazoaren aurrean.

Beraz, fiskalak edo beste akusazioek, aukera dute autoa errekurritzeko eta bertan jasotakoaren muga handitzeko, modu horretan ikertutako egitate berriak sartu ahal izateko

¹⁴² PKLren 766. 1 artikuluan jasotzen den araua: “*Contra los autos del Juez de Instrucción y del Juez de lo Penal que no estén exceptuados de recurso podrán ejercitarse el de reforma y el de apelación. Salvo que la Ley disponga otra cosa, los recursos de reforma y apelación no suspenderán el curso del procedimiento.*”.

¹⁴³ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketen ingurukoa.

¹⁴⁴ Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta faltan prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketen ingurukoa.

idazkietan. Aldiz, inputatuaren defentsa kontrakoa egiteko eskubidea du, errekurritzeko aukera du bertan jasotakoa murrizteko¹⁴⁵. Baina prozedura honetan ez dute errekurtsorik tarteratzen.

Nahiz eta kasu honetan fiskalak errekurritzen ez duen, aukera hori aztertzea merezi du. Izan ere, errekurtsioa tarteratzean kontuan izan behar da transformazio-autoa ez dela behin-betiko ebazpen irmo bat¹⁴⁶.

Prozesuaren egitateak kontrol judizial baten menpe daude. Auzitegi Gorenak adierazten duenaren arabera, prozesu penalaren objektua ez da guztiz askea akusazioa osatzen duten alderdientzat, epaileak kontrolatzen duelako zigorgarria izango den hori. Honen helburua ustekabeko akusazioak ekiditea eta zigortzeko egokiak edo bidezkoak diren atal faktikoen mugaketa da. Baina, kontrol judizial hau apelazio errekurtsioaren bermea du, transformazio- autoaren aurrean errekurritzeko aukera emanez. Izan ere, ahozko epaiketa irekitzen duen autoak ez du aukera hori¹⁴⁷.

Akusazioak transformazio-autoan jasotzen diren egitateen aurrean errekurrituz gero, hauek egokitu ahal ditu epaileak. Hori gertatzekotan, ondoren, akusatzailea bere akusazioa osatu ahal du autoen mugen barnean, hauek errespetatuz, eta bidezko akusazio bat gauzatzuz. Beraz, akusazioak adierazi ahal du akusazio idazkia osatzeko ezintasuna tipifikazioa egiteko oinarrizko elementuak falta direlako autoan. Izan ere, hori izango litzateke kasu honetan fiskalak aurrera eman beharko lukeen egintza prozesala. Errekurrituz gero, transformazio-autoan bere akusazioa osatzeko falta diren egitateak gehitzeko aukera izango luke, modu horretan akusazio bidezko bat osatuz. Izan ere, nahiz eta fiskalak errekurritzeko aukera izan eta hori bide egokiena izan bidezko akusazio bat osatu ahal izateko, errekurtsioaren bidez auto horretan egitate berriak sartu ahal izateko hauek instrukzioan zehar ikertutako egitateak izan beharko lirateke. Eta kontuan hartu behar da kasu honetan argi dagoela Maria ikertu izaera izan zuela autoan jada jasota agertzen zen egitate bakarragatik.

Ondorioztatu ahal da, kasu honetan, fiskalak ez zuela legeak ematen dion bidezko aukera erabili. Autoa ez errekurritzerakoan eta ustekabeko akusazio bat osatzerakoan, Maria Montoyaren defentsarako eskubidea larriki kaltetu egin zuen, honek ez zuelako bere burua egitate zehatz horien aurrean defendatzeko aukerarik izan. Fiskalak prozesuaren garapen egokia kaltetu zuen ustekabeko akusazio hori osatzerakoan, autoa errekurritu beharrean.

6.2. Defentsak ustekabeko akusazioa salatze bideak

Ustekabeko akusazio baten aurrean, defentsak akusatuaren defentsarako eskubidea bermatuz, horren kontra azaldu behar da. Izan ere, aztertzen dugun kasuan, akusazio berri hori

¹⁴⁵ Iritzi honetakoa da ÁBREGO SÁNCHEZ-OSTIZ, IDOIA. RUIZ DE ERENCHUN ARTECHE, EDUARDO, *op. cit.*, 2. or.

¹⁴⁶ Zentzu honetan, BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “La finalización de las diligencias previas”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011, 572-573 or.

¹⁴⁷ AGE 94/2010, 2010eko otsailaren 10eko, 2. OJ. Honakoa jasotzen du: “*Y tal control judicial, está sujeto al oportuno recurso de apelación, posibilidad abierta al auto de transformación del procedimiento en abreviado, del que carece, sin embargo, el auto de apertura del juicio oral, en aquellos aspectos que impulsan la continuación del mismo.*”

fiskalaren behin-behineko ondorioen akusazio idazkian jasotzen denez, defentsak dituen aukerak murrizak dira.

Aurretik landutako puntuak kontuan hartuz, akusazio printzipioak onartu eta auresuposatu egiten du prozesuan auzipetua den pertsonaren defentsarako eskubidea akusazioa gaitzetsiz edo horri aurre eginez. Prozesu penal osoan zehar defentsarako eskubidea egikaritu behar da, subjektu pasiboa babestuz edo legeak aurreikusten dizkion eskubideak bermatuz¹⁴⁸. Beraz, ustekabeko akusazio bat gauzatzen denean, defentsak horri aurre egin behar dio lege prozesalak ematen dizkion baliabideekin.

Alde batetik, defentsa idazkian jaso dezake. Aukera hau ez da oso formala, baina bai posiblea. Bertan adierazi ahal zuen ustekabeko akusazio bat osatu egin zela Mariaren kontra, eta horrek Mariaren defentsarako eskubidea eta prozesu penala modu egokian garatzeko aukera urratu zuela. Izan ere, kasu honetan, defentsa idazkiak soilik adierazten zuen fiskalaren akusazioekin ados ez zegoela, modu espresuan adierazi gabe ustekabekok akusazio bat eman zela eta Mariaren defentsarako eskubidea urratu egin zela akusazio hori osatzean. Izan ere, posiblea da defentsak bere idazkia osatzerakoan ustekabeko akusazioaren inguruan aipamenik ez egitea, ahozko epaiketa irekitzen zuen autoaren xedapenezko atalean ez zelako jasotzen horren inguruko ezer. Baina, defentsak bermatu beharko luke Mariaren eskubideak errespetatuak izaten ari zirela prozesu penal osoan zehar, hortaz, ez legoke txarto egongo idazkian jasotzea fiskalak egindako ustekabeko akusazioaren adierazpenen bat¹⁴⁹.

Bestetik, ahozko epaiketaren aurretiazko arazoetan salatzeak aukera dago¹⁵⁰. Aurretiazko arazoak ahalbidetzen dira PKL-ko 786.2 artikuluan, zeinetan adierazten den ahozko epaiketan hasieran alderdientzako denbora tarte bat irekitzen dela alegazioak egiteko. Alegazio horiek kasuarentzat garrantzitsuak izan behar dira, eta horregatik adierazi behar dira ahozko epaiketa hasi aurretik. Izan ere, alegazio horiek honakoak izan daitezke: organo judizialaren eskumen eza salatzea; oinarrizko eskubide baten urraketa salatzea; aurretiazko pronuntziamentua izan behar duten artikulua adieraztea; ahozko epaiketaren atzeratzea eskatzea; egintzen deuseztasuna eskatzea; eta epaiketan bertan praktikaturiko diren frogen inguruko adierazpenak egitea, horien balioa azalduz¹⁵¹. Epailak momentu horretan ebatzi beharko du alegazioei buruz, eta ebazpen horren kontra ez dira errekurtsioak onartzen. Akusatzaileek behin-behineko ondorioetan transformazio-autoan jasota ez

¹⁴⁸ PÉREZ VAQUERO, CARLOS, *op. cit.*, 6-8 or. Hau adierazi egiten du: “*El principio acusatorio admite y presupone el derecho de defensa del imputado y, consecuentemente, la posibilidad de «contestación» o rechazo de la acusación. Provoca en el proceso penal la aplicación de la contradicción, o sea, el enfrentamiento dialéctico entre las partes, y hace posible el conocer los argumentos de la otra parte, el manifestar ante el Juez los propios, el indicar los elementos fácticos y jurídicos que constituyen su base, y el ejercitar una actividad plena en el proceso. La acusación, contradicción y defensa han de garantizarse no sólo en el juicio de primera instancia sino también en la fase de recurso, y, por ello, en la apelación, donde ha de existir también una acusación formulada, contra una persona determinada, pues no hay posibilidad de condena sin acusación.*”.

¹⁴⁹ Ideia hori jasotzen du SÁNCHEZ GÓMEZ, RAÚLek, “El derecho a la asistencia y defensa letrada en el marco del proceso penal”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 8. zk., 2018.

¹⁵⁰ Aurretiazko arazoei dagokienez, gaztelera *cuestiones previas* moduan adierazten dena, adiera desberdinak izan ahal ditu autoreen arabera. Hau da, aurretiazko arazoak deitzeaz gain, parte hartzeko txanda, fase saneatzailea, aurretiazko galdekizunen txanda, besteak beste.

¹⁵¹ Zentzu horretan, ORTEGO PÉREZ, FRANCISCO, «Juicio de acusación», *sobreseimiento y cuestiones previas en el proceso penal*, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 13. zk., 2005.

dauden egitateak sartuz gero, defentsak ahozko epaiketaren aurreko arazoetan hau salatzeko aukera du, hau hori adierazteko bide formal eta egokiena izanik¹⁵².

Hortaz, aurreko galdekizunetan salatu dezake defentsak ustekabeko akusazioa egin badute bere defendatuaren kontra. Ustekabeko inputazioak defentsarako eskubidearen eta akusazio printzipioaren urraketa bat suposatzen du. Izan ere, prozesuan ezarri ahalko den zigorra transformazio-autoan jasotako objektuaren esparrura mugatuta egongo da, eta ezin da bertan agertzen ez den zerbaiten inguruan zigorrik ezarri¹⁵³. Beraz, defentsak aurretiazko arazoetan ustekabeko akusazioaren ondorioz defentsa eskubidearen urraketa salatu lezake, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 238. artikulua jarraiki, egintza prozesalen deuseztasuna eskatzeko aukera izango luke. Izan ere, fiskalak burututako egintza prozesalak ez zituelako errespetatzen prozesu penalaren arauak ustekabeko akusazio bat egiterakoan, prozesuaren garapen egokia urratuz. Beraz, defentsak eska ahal zuen egintza prozesalen deuseztasuna ematea, eta prozesuan atzera egitea bere defendatuaren eskubide guztiak modu egoki batean bermatuak izateko.

Kasu honetan, defentsak ustekabeko akusazioaren salaketa gauzatzeko aukera izan arren, ez zuen. Bi supostu egon daitezke honen aurrean. Alde batetik, defentsak akusazioaren kontrako oposizio orokorra egiterakoan bere idazkian, prozesuan burutu behar zuen defentsa eginda dagoela uste izatea. Bestetik, ahozko epaiketa irekitzen zuen autoak ez zionez erreferentziarik egiten xedapenezko atalean ustekabeko akusazioari, agian defentsak horri jaramonik ez egitea erabaki zuen. Argi dagoena da ez zuela egintza prozesalik gauzatu bere defendatuaren kontrako ustekabeko akusazioa salatzeko, eta agian hori defendatuaren defentsarako eskubidearen kontrako portaera bat izan daiteke.

¹⁵² Ideia hori azaltzen du ESTÉBANEZ IZQUIERDO, JOSÉ MANUELeK, “Apuntes sobre la facultad de formular alegaciones complementarias en la audiencia previa del juicio ordinario”, *Revista de Derecho vLex*, 200. zk, 2021.

¹⁵³ El Derecho, Lefebvre, 2017ko martxoaren 10ekoa, *Las llamadas imputaciones "sorpresivas"*. Eskuragarri: <https://elderecho.com/las-llamadas-imputaciones-sorpresivas> [Azken kontsulta: 2021/04/20]

7. ONDORIOAK

7.1. Egitateen ibilbideari buruz

Aztergai izan dugun kasuan, Catalinak bere lehengusinare kontrako salaketa bat jarri zuen, eta bertatik bi delitu ondorioztatu ahal ziren: immigrazio klandestinoaren faboratzearen delitua eta langileen eskubideen kontrako delitua. Kasuaren egitateak zirela eta, prozesua inkoatu egin zen soilik aipatutako lehenengo delituagatik, eta horien inguruan aritu ziren aurretiazko eginbideak. Ondorioz, transformazio-autoan soilik barneratu egin zen delituzko egintza hori. Egoera horretan, fiskalak Mariaren kontrako ustekabeko akusazio bat osatu zuen, transformazio-autoan sartuta ez zegoen bigarren delitu hori suposatu ahal zuen egitateetan oinarrituz. Izan ere, ez ahozko epaiketa irekitzen zuen autoan, ezta defentsa idazkian, ez zitzaion ustekabeko akusazio horri erreferentziarik egin. Bukatzeko, ahozko epaiketan epaileak ez zuen bigarren egitatearengatik akusatua zigortu. Testuingurua hori izanda, ondorio hauetara heldu gara:

7.2. Transformazio-autoaren funtzioari buruz

Transformazio-autoaren funtzioa prozesuaren objektua izango denaren markoa finkatzea da. Beraz, horren bidez adierazten dira prozesuan akusatuak izan ahal diren pertsonak eta egitateak, eta alderdi akusatzaileak ezin dira marko horretatik atera.

Pertsona bat aurretik ikertu moduan deklaratu behar du, ondoren transformazio- autoan bere inputazio formala jaso ahal izateko. Izan ere, faltan botatzen dugu arau zehatz bat zeinetan modu espresuan adierazten den noiz ematen den prozedura laburtu baten subjektu pasiboaren inputazio formala. Jurisprudentziak ez du ildo finko bat mantentzen honen inguruan, eta horrek arazoak sortu ahal ditu¹⁵⁴. Uste dugu garrantzitsua izango litzatekeela prozedura laburtuan inputazio formalaren atala berariaz arautzea.

Mariaren kasuan, prozesuaren subjektu pasiboa identifikatuta zegoen eta inputazio formala modu egokian osatu zen. Mariak ikertu gisa deklaratu egin zuen transformazio-autoa eman baino lehen eta bertan jasotako egitateengatik.

7.3. Ustekabeko akusazioari buruz

Ustekabeko akusazioa pertsona baten kontra egiten den eta bidezkoa ez den akusazioa da. Prozesu penalean akusazioa osatzeko bermeak urratu egiten ditu, subjektu pasiboak egitate horregatik ikertu izaera izan ez duelako eta ez duelako bere burua defendatzeko aukerarik izan.

Fiskalak Mariaren kontra ustekabeko akusazio bat osatu zuen aurretik ikertua izan ez zen eta transformazio-autoan sartuta ez zeuden egitate batzuen inguruan. Hori egiterakoan, prozesu penala modu egokian garatzeko aukera zapuztu zuen, Mariak zituen berme konstituzionalak urratuz.

Konstituzio Auzitegiak ustekabeko akusazioak debekatzen ditu. Auzitegiak argi uzten du ikertua inputatzen zaizkion egitateen inguruan informatua egon behar dela, eta horien gaineko

¹⁵⁴ Jurisprudentzia eta autore ezberdinen iritziz, prozedura laburtuan subjektu pasiboaren inputazio formala transformazio-autoaren bidez egiten da. Baina, hori ez da jurisprudentzian ikus daitekeen ildo bakarra. Izan ere, lanean jaso dugun moduan, badaude honako ideia mantentzen dutenak: prozedura laburtuan zitazioaren bidez egiten da subjektu pasiboaren inputazio formala.

inputazio formala izan behar duela. Gainera, inputazioa hasierako fasean eginda egon behar da, subjektu pasiboaren defentsarako oinarritzko eskubidea kaltetua ez suertatzeko. Izan ere, inputazio formalaren eta akusazioaren artean korrelazioa egon behar dela adierazten du.

Akusatuari instrukzio fasean inputatu zaizkion egitateetatik ondorioztatu egiten den akusazioa bidezkoa da. Nahiz eta ageriko modu batean zehaztuta ez egon transformazio-autoan, egitate horiengatik inputatu gisa deklaratu badu eta auto horretan finkatuta egitateen esparru horretatik ondorioztatu ahal bada, akusazio hori ez da ustekabeko akusazio bat izango.

Instrukzioan zehar auzipetuak ikertu moduan deklaratu badu eta ondoren akusazioa osatzeko egitate berriak agertu badira, horien inputazioa eta deklarazioa egin behar du. Ezin da ustekabeko akusazio bat egin aurretik deklaratu ez duen egitate zehatzen inguruan.

Mariaren kasuan, immigrazio klandestinoaren faboratzearen inguruko egitateengatik modu egokian inputatua izan zen eta egitate horien gaineko akusazioa bidezkoa zen. Izan ere, langileen eskubideen kontrako delitua ondorioztatu ahal duten egitateei dagokienez, Mariak ez zuen ikertu moduan horiengatik deklaratu, hauek ez ziren transformazio-autoan mugatutako objektuaren esparruan sartu, beraz fiskalak ezin zuen horien gaineko akusazio bat eratu.

GEEAk adierazten du ustekabeko akusazioak ez direla bidezkoak, hauek hiritarren oinarritzko eskubideak urratzen dituztelako. Pertsona orok prozesu penal batean bere burua defendatzeko eskubidea du, eta defentsa hori modu egokian osatzeko beharrezko denbora izan behar du. Beraz, ustekabeko akusazioek betebeharrak hori urratzen dute.

Ahozko epaiketa irekitzen zuen autoa ematen zuenean, epaileak ez zuen ezer adierazi fiskalak egindako ustekabeko akusazioaren inguruan. Ondorioz, guk ulertzen dugu epaileak ez zuela bete bere kontrol-funtzioa ageriko modu batean, izan ere, soilik alde batera utzi zuelako akusazio hori, prozesua bidezkoa zen akusazioagatik bakarrik bideratuz.

7.4. Epaileak emandako ebazpenari buruz

Kasu honetan epaileak emandako ebazpena kontuan izanda, ezin dugu esan Mariaren defentsarako eskubidea urratua suertatu zenik. Izan ere, epaileak ez zuen ebatzi ustekabeko akusazioaren inguruan, eta ez zuen Maria zigortu egitate horregatik.

Epaileak akusazioek osatutako eskaera guztiak ebatzi behar ditu. Aztertu dugun kasuan, ez zuen adierazpen zuzenik egiten fiskalak Mariaren kontra osatu zuen ustekabeko akusazioaren inguruan. Beraz, ulertu ahal dugu ez zuela bete bere funtzioa dagokion moduan. Zentzu horretan, guk uste dugu epaia ez zela kongruentea izan ez ziolako erabateko erantzuna eman fiskalak osatutako akusazio guztiei. Baina, aldi berean, ustekabeko akusazioaren gaineko epaiketa bat ez egitean, Mariaren defentsarako eskubidearen urraketa eragotzi zuen epaileak.

Epailea prozesu penalean zehar duen kontrol funtzioari dagokionez, esan genezake kasu honetan ez zuela ageriko modu batean bete. Izan ere, ez du adierazpen zehatzik egin ustekabeko akusazio hori salatzeke, baina, ez du zigorrik ezarri horien inguruan. Hortaz, faltan bota izan dugu epailearen nolabaiteko adierazpen bat kasuan emandako arazoaren inguruan.

7.5. Defentsarako eskubideari buruz

Prozesu penal baten subjektu pasiboak bere kontrako inputazioa dagoen momentutik, hau formala ez izan arren, konstituzionalki bermatutako defentsarako eskubidea osotasunean balia dezake. Subjektu pasiboaren inputazioa ezin da atzeratu, honek bere kontrako inputazioak dauden momentutik egikaritu ahal izateko defentsarako eskubidea. Eskubide hau prozesuan abokatu baten laguntzarekin egikaritzen du.

Auzipetuak leporatzen dizkioten egitateen inguruko informazio osoa izateko eskubidea du defentsa egoki bat eratu ahal izateko. Informazio hori ikertu gisa deklaratzeko duen momentutik helarazi behar zaio.

Akusazio-printzipioari dagokionez, alderdi akusatzaileek akusazio eratu behar dute transformazio-autoan finkatutako markoaren barnean. Esparru horretatik kanpo eratutako akusazioa ustekabekoa izango litzateke eta akusatuaren defentsarako eskubidea urratuko luke. Mariaren kasuan, urraketa hori eman zen fiskalak egitate berriak barneratzerakoan akusazio-idazkian.

Konstituzionalki babesgabezia emateko ezinbestekoa da arau-hauste prozesal bat egoteaz gain, auzipetuaren defentsarako eskubidea kaltetua suertatzea. Ustekabeko akusazioen kasuan, prozesuaren garapen egokia urratu egiten da defentsarako eskubidea kaltetzen delako akusatuak ez duelako bere burua defendatzeko izan behar duen aukera. Beraz, uste dugu egoera horretan akusatuaren defentsak errekurtso bat tarteratu beharko luke hori salatzeko. Aztertu dugun kasuan, Mariaren defentsak ez zuen errekurritu transformazio-auto hori, ahozko epaiketa irekitzen zuen autoak ustekabeko akusazio hori jaso egiten ez zuelako.

7.6. Ustekabeko akusazioa ekiditeko bideei buruz

Kasu honetan Fiskalak ustekabeko akusazio bat egin zuen transformazio-autoaren mugetatik kanpo eratzen zuelako bere akusazioa. Hau ekiditeko bide egokiena autoa erreforman eta apelazioan errekurritzea izango litzateke. Modu horretan akusatuaren defentsarako eskubidea eta prozesuaren garapen egokia bermatuta egongo litzateke.

Mariaren defentsak fiskalaren jarduera salatzeko faltan bota dugu. Bi aukera zituen: defentsa idazkian adieraztea edo ahozko epaiketaren aurretiazko arazoetan adieraztea. Nahiz eta prozesua aurrera egin fiskalaren ustekabeko akusazioari jaramonik egin gabe, defentsak horren salaketa egin beharko zukeen Mariaren defentsarako eskubidea bermatzeko.

8. BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRIAK

8.1. Bibliografia

- ÁBREGO SÁNCHEZ-OSTIZ, IDOIA. RUIZ DE ERENCHUN ARTECHE, EDUARDO, “La fase intermedia en el procedimiento abreviado: las garantías del derecho de defensa en la «imputación sorpresiva» a través de las diligencias complementarias”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 6. zk., 2012.
- ARMENGOT VILAPLANA, ALICIA, *El imputado en el proceso penal*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2013.
- BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “Escrito de acusación”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011.
- BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “La apertura del juicio oral”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011.
- BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “Introducción: proceso penal y sus principios”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011.
- BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “La finalización de las diligencias previas”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011.
- BELTRÁN MIRALLES, SOFÍA, “Finalización de las diligencias previas: la continuación del procedimiento abreviado”, SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ (Koord.), *Proceso Penal Tomo I. Cuestiones Generales. Procedimiento Abreviado*, Civitas, Madril, 2011.
- CALAZA LÓPEZ, SONIA, “Proyecciones del derecho de defensa tras la reforma de la LECrim: Son todas las que están pero no están todas las que son.”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 924. zk., 2016.
- CHOZAS ALONSO, JOSÉ MANUEL, “El derecho a un juicio público con todas las garantías”, CHOZAS ALONSO, JOSÉ MANUEL (Koord.), *Los sujetos protagonistas del proceso penal*, Dykinson, Madril, 2015.
- CORDÓN MORENO, FAUSTINO, *Las garantías constitucionales del proceso penal*, Aranzadi, Zizur Txikia, 1999.
- ESCOBAR JIMÉNEZ, RAFAEL, “Aspectos de la fase intermedia del procedimiento abreviado”, *Diario La ley*, 5967. zk., 2004ko martxoaren 3koa.
- ESTÉBANEZ IZQUIERDO, JOSÉ MANUEL, “Apuntes sobre la facultad de formular alegaciones complementarias en la audiencia previa del juicio ordinario”, *Revista de Derecho vLex*, 200. zk., 2021.

- FERNÁNDEZ-GALLARDO FERNÁNDEZ-GALLARDO, JAVIER ÁNGEL, “La asistencia letrada en diligencias de investigación”, AAAA, *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, 69. zk., 2016.
- FERNÁNDEZ-GALLARDO FERNÁNDEZ-GALLARDO, JAVIER ÁNGEL, *Cuestiones actuales del Proceso Penal*, Ediciones Experiencia, Bartzelona, 2015.
- GÓMEZ COLOMER, JUAN LUIS, “El juicio oral: estructura y principios informadores”, AAAA, *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019.
- GÓMEZ COLOMER, JUAN LUIS, "La instrucción del proceso: Su estructura esencial", AAAA, *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019.
- GONZÁLEZ I JIMÉNEZ, ALBERT, *Las diligencias policiales y su valor probatorio*, J.M. Bosch Editor, Bartzelona, 2014.
- GOYENA HUERTA, JAIME, “Principio acusatorio”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 10. zk., 2018.
- IBARRA SÁNCHEZ, JUAN LUIS, “Alcance y finalidad del auto de transformación en procedimiento abreviado del Artículo 779.1.4ª LECR, como primer juicio de acusación y de probable responsabilidad penal. El auto núm. 627/2014 de 7 de noviembre, de la audiencia provincial de Palma, caso Nóos”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 37. zk., 2015.
- MATEOS RODRÍGUEZ-ARIAS, ANTONIO, “Principio de oportunidad, justicia negociada y posición de las partes en el proceso penal.”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 56. zk., 2019.
- Memento, *Procesal Penal*, Francis Lefebvre, Madril, 2016.
- MONTERO AROCA, JUAN, “Las partes acusadoras: el Ministerio Fiscal”, AAAA, *Derecho Jurisdiccional III. Proceso Penal*, Tirant to blanch, Valentzia, 2019.
- MUERZA ESPARZA, JULIO J., “A propósito del auto de procesamiento.”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 944. zk., 2018.
- MUÑOZ CUESTA, JAVIER, “Derecho a un Juez imparcial: momento para alegar su vulneración y causas que motivan la pérdida de imparcialidad objetiva.”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 7. zk., 2017.
- MUÑOZ CUESTA, FRANCISCO JAVIER, “El auto de apertura del juicio oral: la calificación de los hechos que hace el juez de instrucción no vincula al órgano sentenciador. Comentario a la STS de 21 enero 2003”, *Repertorio de Jurisprudencia Aranzadi*, 4. zk., 2003.
- NAVARRO MASSIP, JORGE, “El auto de incoación de procedimiento abreviado: la determinación de los hechos punibles, una exigencia sin garantías. A propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo (Sala de lo Penal, Sección1ª) núm. 251/2012 de 4 abril”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 5. zk., 2012.
- OBISPO TRIANA, CONCEPCIÓN, “Publicado el nuevo Estatuto General de la Abogacía Española.Real Decreto 135/2021, de 2 de marzo, vigente a partir de 1 de julio”, *Aranzadi digital*, 1. zk., 2021.

ORTEGO PÉREZ, FRANCISCO, “Reflexiones acerca de la imputación y los estatus procesales de «investigado» y «encausado»”, *Justicia: Revista de derecho procesal*, 1. zk., 2016.

ORTEGO PÉREZ, FRANCISCO, “«Juicio de acusación», sobreseimiento y cuestiones previas en el proceso penal”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 13. zk., 2005.

OTAMENDI ZOZAYA, FERMÍN, *Las últimas reformas de la ley de enjuiciamiento criminal. Una visión práctica tras un año de vigencia*, Dykinson, Madril, 2017.

PÉREZ VAQUERO, CARLOS, “El principio acusatorio según el Tribunal Europeo de Derechos Humanos”, *Derecho y Cambio Social*, 43. zk, 2016ko otsailaren 1ekoa.

PICÓ I JUNOY, JOAN, *Las garantías constitucionales del proceso*, J.M. Bosch Editor, Bartzelona, 2012.

SÁNCHEZ GÓMEZ, RAÚL, “El derecho a la asistencia y defensa letrada en el marco del proceso penal”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 8. zk., 2018.

VÁZQUEZ IRUZUBIETA, CARLOS, “Comentario a la Ley de Enjuiciamiento Criminal (actualizada por las Leyes 13/2015, y 41/2015, de 5 de octubre)”, *vLex*, Madril, 2015.

8.2. Jurisprudentzia

8.2.1. Giza Eskubideen Europako Auzitegia

GEEA Caso Pelissier eta Sassi vs Frantzia, 1999ko martxoaren 25ekoa.

GEEA Salvador Torres vs Espainia, 1996ko urriaren 24koa.

GEEA Bendenoun vs Frantzia, 1994ko otsailaren 24koa.

GEEA Demicoli vs Malta, 1991ko abuztuaren 27koa.

GEEA Weber vs Suitza, 1990eko maiatzaren 22koa.

GEEA Campbell eta Fell vs Erresuma Batua, 1984ko ekainaren 28koa.

GEEA Engel eta beste batzuk vs Holanda, 1976ko ekainaren 8koa.

8.2.2. Konstituzio Auzitegia

KAE 34/2009, 2009ko otsailaren 9koa.

KAA 241/2001, 2001eko uztailaren 26koa.

KAE 118/2001, 2001eko maiatzaren 21ekoa.

KAE 87/2001, 2001eko apirilaren 2koa.

KAE 278/2000, 2000 azaroaren 27koa.

KAE 19/2000, 2000ko urtarrilaren 31koa.
KAE 62/1998, 1998ko martxoaren 17koa.
KAE 149/1997, 1997ko irailaren 29koa.
KAE 102/1997, 1997ko maiatzaren 20koa.
KAE 67/1997, 1997ko apirilaren 7koa.
KAE 121/1995, 1995eko uztailaren 18koa.
KAE 29/1995, 1995eko otsailaren 6koa.
KAE 277/1994, 1994ko urriaren 17koa.
KAE 103/1994, 1994ko apirilaren 11koa.
KAE 290/1993, 1993ko urriaren 4koa.
KAE 273/1993, 1993ko irailaren 20koa.
KAE 128/1993, 1993ko apirilaren 19koa.
KAE 83/1992, 1992ko maiatzaren 28koa.
KAE 11/1992, 1992ko urtarrilaren 27koa.
KAE 186/1990, 1990ko azaroaren 15koa.
KAE 135/1989, 1989ko uztailaren 19koa.
KAE 53/1989, 1989ko otsailaren 22koa.
KAE 149/1987, 1987ko irailaren 30koa.
KAE 141/1986, 1986ko azaroaren 12koa.
KAE 134/1986, 1986ko urriaren 29koa.
KAE 48/1986, 1986ko apirilaren 23koa.
KAE 54/1985, 1985eko apirilaren 18koa.
KAE 70/1984, 1984ko ekainaren 11koa.
KAE 67/1984, 1984ko ekainaren 7koa.
KAE 34/1983, 1983ko maiatzaren 6koa.

8.2.3. Auzitegi Gorena

AGE 338/2020, 2020ko ekainaren 19koa.
AGE 167/2020, 2020ko maiatzaren 19koa.

AGE 627/2019, 2019ko abenduaren 18koa.

AGE 402/2019, 2019ko irailaren 12koa.

AGE 229/2018, 2018ko maiatzaren 17koa.

AGE 1468/2018, 2018ko apirilaren 25ekoa.

AGE 326/2013, 2013ko apirilaren 1ekoa.

AGE 79/2012, 2012ko otsailaren 9koa.

AGE 94/2010, 2010eko otsailaren 10ekoa.

AGE 1061/2007, 2007ko abenduaren 13koa.

AGE 156/2007, 2007ko urtarrilaren 25ekoa.

AGE 179/2007, 2007ko martxoaren 7koa.

AGE 703/2003, 2003ko maiatzaren 13koa.

AGE 5/2003, 2003ko urtarrilaren 1ekoa.

Auzitegi Goreneko Bigarren Salaren osoko bilkura ez-jurisdikzionalaren erabakia, 2006ko abenduaren 20koa.

8.2.4. Probintzia Auzitegia

PAE (Bartzelona) 6291/2019, 2019ko uztailaren 5ekoa.

PAE (Bartzelona) 133/2010, 2010eko martxoaren 2koa.

PAE (Madril) 8424/2009, 2009ko maiatzaren 10ekoa.

PAE (Bartzelona) 26/2009, 2009ko urtarrilaren 9koa.

PAE (Bartzelona) 291/2009, 2009ko uztailaren 7koa.

PAE (Girona) 239/2002, 2002ko maiatzaren 13koa.

PAE (Bartzelona) 297/2000, 2000ko urriaren 2koa.

8.3. Araudia

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 6koa .

1882ko irailaren 14ko Errege-Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1882ko irailaren 17a, 260 zenbakiduna.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1995eko azaroaren 24a, 281 zenbakiduna.

Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2003 Zirkularra, apirilaren 7koa, zenbait delitu eta falten prozedura azkar eta berehalakoaren, eta prozedura laburtuaren aldaketan ingurukoa.

Europar Batasunaren 2012/13 Direktiba (EB), Europar Parlamentu eta Kontseiluarena, 2012ko maiatzaren 22koa, prozesu penaletan informatua izatearen eskubidearen ingurukoa.

8.4. Web-guneak

El Derecho, Lefebvre, 2017ko martxoaren 10ekoa, *Las llamadas imputaciones "sorpresivas"*. Eskuragarri: <https://elderecho.com/las-llamadas-imputaciones-sorpresivas> [Azken kontsulta: 2021/04/20]

SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, JOSÉ MIGUEL, "Atestado policial: algo más que una denuncia", *Noticias Jurídicas*, 2010eko urtarrilaren 1ekoa. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/4510-atestado-policial:-algo-mas-que-una-denuncia/> [Azken kontsulta: 2021/03/20]

Wolters Kluwer, *Diligencias previas*. Eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUMjEzNTtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAiOsOcTUAAAA=WKE#I5 [Azken kontsulta: 2021/03/25]

Wolters Kluwer, *Auto que pone fin a las diligencias previas*. Eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUNDMzNjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAK35vjDUAAAA=WKE [Azken kontsulta: 2021/03/27]

Wolters Kluwer, *Principio Acusatorio*. Eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUNjc0MjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAkWlzlzUAAAA=WKE#:~:text=Es%20aquel%20principio%20inspirador%20del,y%20pruebas%20de%20los%20mismos. [Azken kontsulta: 2021/04/15]